


KUTSIDALV BIDEA,
IXABEL



JOXEAN SAGASTILABAL



JOXE ANDRES SAGASTIZABALERRAZU.
Eibarren jaio zen, 1956an,
Gasteizen hazi eta Donostian bizi
da. Ekonomia eta maisu ikasketak
egin zituen, eta gauegun euskara
itakasleada. 1983an, «Cafelniña»
saria itabazi zuen *Jolasean* (Elkar
1987) izenburuko konta—
kizunarekin. Harenak dira,
gainera: *Zetura igotzeko* (Susa,
1986), ipuin bilduma; *Paixibo*
(Elkar, 1987), nobela; eta
Inguratutagatxeuckn (Baroja, 1989)
ipuin bilduma.

JOXEAN SAGASTIZABAL

KUTSIDAZU
BIDEA, IXABEL

OSTIRAL SAILA

6. argitaraldia

ALBERDANIA

*Bitartean ibillico dira becatutic becatura amilduaz;
oraiñ pensamentu batean gueroseago itz loyak
gozotoro aditzean: oraiñ escuca, edo queñada batean,
guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac
contatzen, guero dantzán, edo dantza ondoan
alberdanian.*

(J.B. AGIRRE)

1. argitaraldia: 1994ko apirila.
2. argitaraldia: 1994ko uztaila.
3. argitaraldia: 1994ko iraila.
4. argitaraldia: 1994ko azaroa.
5. argitaraldia: 1995eko urtarrila.
6. argitaraldia: 1995eko martxoa.

*Euskojaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza
tzan du liburu honek.*

Azala, diseinua eta ilustrazioa: Antton Olariaga

© Joxe Andres Sagastizabal Errazu


© ALBERDANIA, S.L.- Istillaga, 2-behea,
20304 Irun

ISBN: 84 - 88669 - 10 - 0

Legezko Gordailua: S.S. 171/95

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A. Araba kalea, 45
20800—Zarautz

KUTSIDAZU
BIDEA, IXABEL



1980RAKO URTE PARE BAT falta zela, uztaileko arratsalde sargori batean ailegatu nintzen zibilizazioaren azken portura, Tolosara.

Mendian gora, Vasconum.

Hemeretzi urtez asfalto hutsean hazi eta baserri batera joan nintzen, neure *buruajosechu el vasco* bihurtu nahian.

Maleta handi batekin.

Kristoren bero bustia.

Ibaiak (akaso neolitikoan ibai izanak) kiras-turik guztiz giroa.

Indijena batek seinalatu zidan bidea; ti-poak ulertu nire galdera, eta arras harriturik ni, euskaraz komunika nintekeela eta. Beraz, aurrera eta ezkerrera, tuneletik; kostatu egingo zitzaidala, oinez eta dema-harriari tiraka; esan beharrik ez.

Izerditan blai iritsi nintzen tunelera, pizkorte-ko paradatxoetan usain nazkagarri hura. Tunela pasa eta Marino Lejarretaren ameskaiztoetan azaltzen zen aldapa. Kontaktoak esana: "herriaren kaskotik dexente lehenago, baserria bakarrik dago". Ni ere bakarrik nengoen, ai jauna! bakarrik eta neka-neka eginda, eta lanroberra tuneletik, eta indijena potolo-txapeldun-puroduna txofer.

—Atsalde on!

—Berdin.

—Noa hua?

—Aranguren baserrira, eram...

—Bai, gizona, sartu!

Barrura.

—Aranguren prostuf-iar-txaputi?

—Nola esan duzu?

—Aranguren ñok txarriniau familia?

—Eeeh, ez naiz familiarra, euskara ikastera nator.

—Euskera ikastera? Ah, buen sitio Harrialde, todos hablamos aquf, aprenderas enseguida, ya veras.

—Hori uste dut, eta horre...

—... Ilau gaituk! Aranguren hauxe dek!
Flusping-txetxerrep eta asko ikasi!

—Eskerrik asko.

—Una cosa tengo que desirte, los de Aranguren no hablan tan claro como yo, tienen fama de hablar serrao.

Ai Santa Gertrudis!

Bueno, etxe zuri-gorri bat eta bi zakur zaunkari niregana, bata handi-handia, bestea txiki-txikia eta ni erdi-erdian. Metro batera geratu ziren, zaunka eta zaunka. Animaliek beldurra igarri eta nola gehiago aztoratzen diren, egundoko ahaleginak egin nituen ikara ezkutatzen, baina belarri-zulotik ere irteten zidan.

-Txuri, Negro, hona!

Eta Txuri eta Negro, hara; harrigarria benetan.

Mustroek aldegin eta printzesa zetorkidan, nire adineko neska musugorri-urre-rubia-irribarretsu bat.

Neska katxarroa, aizue.

—Hola, zu zera gure etxera datorrena?

-Aranguren da hau?

-Bai.

-Ba bai.

-Ederki, pozten naiz; Ixabel naiz, eta zu?

-Juan Martin.

-Bueno ba, zatoz, mutiko, etxia eta familia ezautu behar dituzu.

—Zenbat zarete zuek?

—Ba amona, gurasuak, bi anaiak, ahizpa eta ni, eta behiak, oiluak, konejuak, ardi batzu, txakurrak, katuak eta euli pilo bat.

Gary Cooperrekin gogoratu nintzen, *Solo ante el peligro* sentitu nahi bazuen hona etorri besterik ez.

Segitu nion Ixabeli; lanerako jantzita, soineko zaharra, mantala eta imajinatzen hasia nintzen gorputza azpitik.

Gazte nintzen oso.

Ez nekien gauza handirik neskei buruz.

Baina gustatu egiten zitzaizkidan.

Sartu ginen, belarra eta simaurra nahastuta sentitzen den fragantzia surtzuloetan, eta hantxe zeuden, denak sukaldean.

. Monster familia.

Saiatuko naiz azaltzen, amonak ez zuen banpiroa ematen, aitak ez zuen Herman Monsteren itxurarik, ezta amak Yvonne De Carlo-rena ere, baina oro har... bi anaiak bikiak dudarik gabe, eta, dudarik gabe ere, buru normal batean kabitzen dena erdibana; ahizpa ipuinetako amordearen alaba, itsusia bai behintzat; gaiztoa? Ez nekien artean; gurasoak intzesto-ezkontza eginak, ze igual-igualak ziren, sendoak, boronoak, bekozkoak; eta amona! *La bruja piruja!* txiki-txikia, begiak zimur arteko zulo sakonetan, beltzez guztiz eta azken irribarrea berrogeita zazpian.

Hori dena begirada batean.

Eta Ixabel erdian, eta maite zituela zirudien. Sasi arteko lorea.

Seguru errekan jaso zela saski eta guzti.

Gauza bat segituan konprobatu nuen.

Hablaban serrao.

—Kaixo, moteil, txorronfuf basilao! —Bikiak, zartada latzak bizkarrean.

-Munzj galitxrop —Aitak.

—Txurriasko xertujg —Amak.

—Berdin —Nik.

—Kaixo, Bego naiz, zer moduz?—Ezin izan nion ezer erantzun, ulertu duenaren harriduraz.

Amonak begiratu ere ez zidan egin.

Eta familia-buruak, denon izenean, ongi-etorritzat hartu nuen diskurtsoa bota zidan; tuitik ez nion ulertu, hitz batzuk, "baserria", "lana" "nekia"; familia-burua ama zen.

—Bueno, moteil 'torri ai, kuartua'kutsiko diau!

Ixabeli begiratu nion.

—Beraiekin joateko, kuartoa erakutsiko dizutela.

—Eskerrik asko, Ixabel.

Ama hizketan hasi zitzaidan, eta Ixabelen laguntzaz zera ulertu nuen: ez neukala oherik, baizik eta koltxoia lurrean, baina pentsatzen zuela ondo egongo nintzela.

Beraz, bikien atzetik goiko pisura joan nintzen; bidean, argi eskas hartan, usain beroak eta mastekatze-hotsak, baserriko beste bizidunak.

Kuarto handia, bi ohe biki bikientzat eta erdian nire koltxoia, txukun-txukun jarria, izarra urdinak eta tapaki gorrixka. Kuartoan, bestela, armairua besterik ez, han egokitu nituen ondasunak.

Bikiak sinpatikoak ziren, ihardun eta ihardun ari zitzaizkidan, eta laurdena ulertuz, hiru laurdenak asmatuz, moldatzen nintzen.

-'torri Juanma, baserria 'kutsiko diau.

Eta baserria "kutsi" zidaten.

Dozena bat behi. Ez naiz sekula "behifilo" izan, aurpegi zuntzun horiek, behi-aurpegiak, jakina, behiak, bej! Nire bihotz eskertzarrekoan inongo xamurtasunik ez esnea, yogurrak, gazta, gurina, natazko pastel eta abarreatatik; inondik ere ez nituen erlazionatzen kutixi horiek aziendekin, nik erosketak supermerkatuan, eta supermerkatuan behirik ez, txistera majiko erraldoitik sortutakoak salgai.

Behi bakoitza bere apartamentuan zegoen, apartamentuak egongela, logela, sukaldea eta komuna zeuzkan; lau hankak, gorputzaren euskarri, egongelan; burua sukaldean sartuta, askan, belar artean; atzekaldean komuna zegoen, eta egongela logela zen gauez.

—Denak behiak dira? Zezenik ez dago?

—Zezena? Bai gizona! Hoixe daola, zein iruditzen zak izangoala?

—Handiena, hori.

—Eztek pa hori, hori gure Juanita dek, ez al dituk errapiak ikusten?

—Errapiak? Zer dira errapiak?

—Hauxe!

Errapiak = Tetas de vaca. Fitxerora.

Begira jarraitu nuen, errapiak, errapiak, errapiak... uaoh!

—Hau da zezena.

—Oso ondo, baina eztek zezena, iskua dek, oso gaztia dek oraindik.

—Iskua?

—I-dis-ko-a, haunditzen danian zezena.

Idiskoa=torito. Fitxerora.

Zuek hau irakurri eta igual ni lasai asko nengoela pentsatuko duzue, beldurra ez da le-tretan igartzen eta. Bada ez, lagunok, guztiz akonjonatuta nengoen, bikien aurrean plantak egiten banituen ere. Promiskuidade hartan, han,

pizti artean, eta zera zegoela! ZEZENA! UN TORO! "Gaztia" zela, "iskua" zela, ja! Manolete akabatu zuenak lau urte eskas zeuzkan!

Atzekaldera joateko pasabide estua zegoen *suka/deen* aurretik, eta behiak eta Manolete gizarajoaren akabatzailea, jendea ikusi orduko, aurreraka oldartzen ziren, jana zetorrelakoan, eta pasatzen zenarengandik hogeitazentimetro-tara gelditzen ziren adar-puntak; pasatzen zena bikietakoa bazen, *no problem*, "OIN EZ, JUANITAAA!" esango zion, adarretik heldu, kope-taldean jo builaka, ni paretari Spiderman baino erantsiago, baina eske ai! pasiloaren bukaeran aharia zegoen! Adarretik adarrera! Sekula ez nintzen ohitu, handik beti pasatzen nintzen Speedy Gonzalezenak eginez.

Behean sukaldea eta ukuilua; goian logelak, komuna eta mandioa; telebistarik ez inon.

Ai Santa Gertrudis, kajatontarik gabe bizi ote liteke?

Ixabel, Bego eta *La Bruja Piruja* batera lotarako, gero senar-emazteak eta hirugarrenean bikiak hiriko maskotarekin.

Afaltzeko ordua. Neka-neka eginda nengoan ulertzeko egin beharreko ahaleginarengatik, eta bizi-beharraren edo *superbizz-beharraren* emozioengatik.

Tortila eta txerri-txuleta. Nire urdail delikatuak gauez entsalada edo kontsomea eta barazki-purea besterik ezin du burutu, baina jan egin behar zeozer, senak energia handia beharko nuela zioetan.

Denak jatun onak, baina amonaren sakea! Berrogeita zazpian, Manoleterekin bateratsu, hil zitzaion gizonarentzat ere ari zela ematen zuen.

Ikasteko nintzen han eta ia nola esaten zuten "tortilla de patatas", "tortilapatata", perfesto, arratsalde bakar batean "iskua", "tetas de vaca"(nola zen, nola?) eta "tortilapatata" esaten ikasia, horrekin bazegoen irteterik mundu zabalera.

Eta postrea.

Intxaurrak.

Guinnes liburuan azal ninteke intxaurrekin barregarri gelditu den pertsona bakar gisa.

Denek eskuez txikitzen zituzten, eta ahora minutuko bost (amonak bederatzi), inongo lanik gabe.

Nik ere saiatu beharko nuen bada.

Bi hartu eta indar guztiaz sakatu nituen elkarren kontra, burdinazko intxaurrak. Amak

belarrira hitz egin zion aitari. Beste ahalegin bat, alferrik, seguru hiriko marikitentzako intxaur itxurako harriak zirela. Aitak Begori, barre ttikiak; Begok Ixabeli, honek errukizko begirada.

Disimulu handiz mahai-gainean utzi nituen bi ale madarikatuok, oso-osorik; amonak hartu, mahaiaren kontra jo, txikitu, jan, eta beste atzaparkada bat hartu zuen ontzitik.

Ixabelek intxaur batzuk kraskatu zizkidan, erraz asko, ez nuen horratik nire ar-indarraz liluratuko.

Nagusitasun intelektualaz, agian.

Baserria.

Hamarrak, zer egin daiteke ordu horretan telebistarik gabeko etxe batean?

Gurasoak erretiratu egin ziren; Ixabelek zera esan zidan, irratia entzun eta goiz lotaratzen zirela, seietan jaiki behar zutela eta; lasai egoteko, nik zazpiak arte (!) lo egin nezakeela.

Neskak harrikoa egiten hasi ziren, amona desagerturik, akelarrean seguruena; bikiek be-
raiekin kafe hartzera joateko, herrira ("kafe" eta "herrira" ulertu nien). Ez neukala gogorik; egia esan, ez nuen neure burua ikusten bikien koadri-
larekin, ezagut bitza bakoitzak bere mugak.

Atarira atera nintzen, ilargia ia betea, hego-
haize epel-epela, errekaostoen murmurioa, ki l—
kerrak, belar-usaina...

Hasperenka.

—Juan Martin. Zer, dagoeneko damututa,
etxera bueltatzeko goguakin?

-Eeez, hain desberdina da dena.

—Gu hemen jaioak gera ba, beti hemen
bizi izan gera; zu estudiante izango zera, ezta?

—Bai, Ekonomia ikasten ari naiz, eta zu?

—COU egin behar, Tolosan, gero Filosofia
estudiatzia gustatuko litzaidake, batez ere Scho-
penhauer eta Hegel. Donostira jun beharko det,
zure etxera apopilo.

Bi motatako burutazioak: lehenengoa, igoi
nagusitasun intelektualaz ere ez nuela lilura-
tuko; bigarrena, nire etxean apopilo egoteari
buruzkoa, erraz imajinatzekoa da.

Ezin izan nion ezer esan, irribarre koitta-
duarekin begira.

—Ondo tratatuko zaitugu, mutiko, ondo
pasako dezu, eta guk bezala egingo dezu hizke-
tan.

—Zuri oso ondo ulertzen dizut, Begori ere bai, baina besteei...

—Bueno, bikiek hika eta oso azkar hitz egiten due, eta gurasuak... bakizu, moteil, baserritarrak.

—Ya, bueno, kuartora joango naiz, ikasi behar dut.

—Ederki. Kontuz zuloakin.

—Ze zulo?

—Ez zera konturatu? Zulo bat dao goiko pisuan, hanka kabitzen da.

—Kontuz ibiliko naiz.

Igo, apunteak atera, eta koltxoi gainean egokitu nintzen. Ikasi behar nuen, batez ere aditzak, "lekarzkiguke", "geniezazkiokeen" eta halakoak; seguru nengoen aditzok barra-barra erabiltzen zituztelako ez niela ulertzen.

Bazinderraizkit, bazinderraizkio, bazinderraizkigu, bazinderraizkie.

Zinderraizkidake, zinderraizkioke, zinderraizkiguke, zinderraizkieke.

Cojones con el vascuence.

Lo hartu nuen. Isiltasuna, deskantsua, bakea.

—Juan Martin! Lo al hao? Esnatu hai, mo-
teil, bueno ez, ez hai esnau, total, guk e sartu
bihar diau!

A ze sustoa, amatxo maitea; pentsa ezazue
lo zaudetela ederki asko, halako batean marraz-
ki bizidun haietan hipopotamoak botatzen zuen
hipo-aullido-huracanadoa. entzuten da, hain modu
zakarrean esnatu eta bi troglodita ikusten ditu-
zue koltxoi aurrean, ez esnatzeko esaten.

Hizketan ihardun zidaten, baina esna ez
banintzen ezertaz akklaritzen, pentsa erdi lo.
Erantzi, apunteak eta guzti nengoen, eta barru-
ra sartu nintzen ni ere, ogroen artean.

Argia itzali eta segituan isildu ziren. Ilar-
gia ia betea leihotik, begiak ohitu eta inguruari
begira hasi nintzen.

Eta ilargiaren argitan ikusi nuen.

Bi metroko armiarma bat, nire aurpegiaren
bertikalean.

Seguru asko Spidermanenak ikusi ukuiluan
eta familiakoa nintzelakoan.

Nazka, hotzikara, beldurra.

Beste deskubrimendu bat, pixontziz ingu-
ratua nengoen, biki bakoitzak berea zuen ohe
azpian.

Buaj.

'A' zurrunka hasi zen.

'B'-k laster jarraitu zion.

Urkiolako San Antonio, erruki.

Bueltaka eta bueltaka.

Bueltaka eta bueltaka eta bueltaka.

Halako batean 'A' ohe-ertzera mugitu zen, nire aldera, tapakiak kendu, ezkeraz orinala atera eta eskuinez zakiloa (kiloko zakila).

Prsss...

'B'-k laster egin zuen beste horrenbeste.

Gauza entretenigarriagorik! Aquapark!

Zurrunkari utzi gabe.

Neu jarri nintzen txizagurak, normal, baina nik orinalik ez.

Bueno bada, komunera. Joan nintzen ate—raino, ireki, itxi eta bi pauso eman komuna aldera.

Orduantxe gogoratu nintzen zuloarekin, eta seko gelditu. Iluntasuna, erabatekoa.

Lau hankatan jarri nintzen, eta aurrekaldea ondo eskuztatuz segitu nuen, kontuz-kontuz.

Kontuz-kontuz sartu nituen bi eskuak zuloatik barrena, bi besoak, eta kristoren kope-takoa hartu zoluaren kontra.

Baserria.

Maldizioka ihardun eta gero (pentsamentuaz) neure burua norabiderik gabe erabat aurkitu nuen, beztasun bete-betean.

Zorria tintontzian.

Ze aldetan zegoen komuna?

Ze aldetan nire gela?

Zuloa behintzat lekutua nuen, eskuak er-tzetan.

Nola demontre moldatu Ixa, Bego eta AMONAREN gelan ez sartzeko?

Idea jeniala izan nuen, ahozpez etzan, *zagramoa* zuloatik sartu eta...

Egia esan, ari nintzela egundoko beldurra pasa nuen. Ukuiluaren gainean nengoen, nire irudimen emankorrak bi mila kiloko "isku" bat ikustarazten zidan, saltoka; ezetz asmatu zeri heldu nahi zion.

Eta logureak, nora jo ez nekiela.

Erabaki egin behar, zeozer.

Zutitu nintzen.

Hiru pauso. Pareta. Eskuinera. Ate bat. Irekitzen hasi nintzen. Kirrinkada, mekauden sata-nas! (pentsamentuaz).

Ez nuen piperrostiarik ikusten.

Zurrunkadak, pertsona bat, ez, bi.

'A' eta 'B'? Ixabel eta Bego? Amona eta Manoleteren izpiritua? Gurasoak?

Pauso beldurti batzuk, koltxoia lurrean. Eskerrik asko, Santa Gertrudis.

Eskerrik asko? Berriz han, hipopotamo-zurrunka artean.

Bueltaka eta bueltaka eta bueltaka.

Goizeko zazpiak arte.

UKUILUAN LANEAN ARI ZIREN, mugimendua, orruak, hizketan, justu nire azpian. Zazpiak bost gutxi.

A ze gaua.

Bikiak batera jaiki ziren, ezin nituen banaka imajinatu.

—Benga, Juan Martin, alper'oi, lo gehiegi eitia txarra dek osasunerako!

La madre que les pario.

Jaiki egin nintzen.

Komunera. A ze aurpegia! Beste bi gau horrelakoak eta Monster-tar ni ere.

Sukaldera.

—Egunon, zer moduz egin dezu lo?

—Ez oso ondo, Ixabel.

—Ohitu arte, bigarren gaua hobia izango da, eseri, zer gosaldu nahi dezu?

—Cola-Cao baduzue?

—Bai, oraintxe jarriko dizut katilukada bat, arrautzik nahi?

Bikiak bina ari ziren jaten, *baconekin*.

—Bai, bat, mesedez. Non dabil jendea?

—Amona lo; Bego Tolosan, lanian, medikua da; gurasuak ukuiluan, behiak jezten.

—Nora "jetsi" behar dituzte?

Bikiak algaraka.

—Jo, jo, kalekumia erabatekua, jo, jo!

—Behiak jeztia zera da, *ordeñar*.

—Aaaah...

Bikiak azkar asko abiatu ziren, mekanikoak omen ziren.

Ixabelekin bakarrik sukaldean. Arraultzea jan nuen, eder askoa, egundoko gorringo handia zeukana. Baconari *hirugiharra* deitu zion, beste bat fitxerora, eta Cola-Caoa ekarri zidan—nean, hura esnea!

—Ze esne ona! Ze gauza goxoa!

—Klaro, honek ez du txerrikeriarik; bildu, egosi, eta barrura.

—Que rica! —Ixabel barrez hasi zen.

—Zer? Orduan baserriak baditu gauza onak ere, ezta?

—Bai, bai. —Nik hizketan ari zitzaidana neukan onenentzat.

Goizetan klaseak neuzkan, Alkizako eskolan. Alkiza non zegoen, ideiarik ez.

—Ixabel, badakizu Alkizara joan behar dudala, bidea "kutsi" beharko didazu.

-Je, je, ikusten? Bikiek bezala hitz egiten dezu dagoeneko!

—Bueno, berandu egingo zait, ez dut lehenengo egunean berandu iritsi nahi.

—Hemendik Alkizara, oinez, hiru ordu laurden behar dira, gaur lagundu egingo dizut.

Kurtsoa ezin hobeto hasten zen.

Ixabel bakerotan azaldu zen. Ez zen argala, potoloa ere ez, inondik ere, baina haragiz ondo

beteta zituen praka-barruak. Seigarrenaren eta bederatzigarrenarengatik hamaikatxo aldiz kondenatua nengoen ordurako.

Alkizara.

Gaua desastre, badakizue; argiarekin batera, berriz, goiz bedeinkatu hartan, Ixabel eta biok Alkizara joan ginen hartan, zeruak zenbait grazia eskaini zidan. Tolosa itsusi hutsetik gertu, bidea haran ttipi txukun batetik zihoan. Pake santu hura, zeru urdina, zelaiak, metak, baserriak, brisara oraindik freskoa epeldu nahiz...

Mendiko usainak.

Ixabel nire ondoan, komentarioak eginez, *cicerone* gisa.

Ni airean, etereo.

Eta nire sentimentuak, lagun maiteok, ez
Ixabelekikoak *prexixamente*, ez.

Australopitekoarekin gogoratu nintzen.

Bai, bai, esplikatuko dizuet.

Munduarekiko nire eskemetan Australopitekoa Aitalehena zen, Patriarka, euskararen lehen hiztuna, eta berarekin gu denok zilborhestez loturik.

Eta goiz bedeinkatu hartan, haranean barrera nire baserritar maitearekin, euskaraz, nire familian haustear zegoen Aitalehenarekiko lotura guztiz tinko uzten nuelakoan pozik nengoan oso.

Ardi galdua etxeraturik.

Josetxu el vasco.

Enfin, hemeretzi urte neuzkan.

Eta Ixabelek Alkizara eramán ninduen, herri koskor bat, han, gain batean.

—Hobe izango da igual beste lagunek elkarrekin ez ikustia. Parre egingo dizue, eskolara ekarri behar zaittutela-eta.

—Ah, bueno, baina gero bila etorriko zara, ezta? —Momentu hartan ez dakit zerk hitz egin zuen, edo nire Ixabelekin ahalik eta denbora gehien pasatzeko gogoak edo bakarrik bueltatzeko gauza izango ez nintzelako kontzientziak. Esan egin nuen, behintzat.

—Bila? Ez al dakizu zerorrek etxera joaten?

—Egia esan, ez dakit asmatuko dudán, bidean nire pentsamentuekin eta zuri adituz etorri naiz, despistatuta.

—Hortik, gero baserri hartatik basuan sartu, bide zabala dago Harrialderaino.

Minotauroaren labirintoa.

—Erraza da, moteil, baserrietan galdetzia ere badaukazu.

—Bai, bai, iritsiko naiz, lasai.

-Aio ba, asko ikasi. —Agur eginez abiatu zen neskatxa.

Herriko plazan omen zegoen eskola, ez nekien nor nuen irakasle, are gutxiago ikaskide.

Pauso batzuk, mundu horretan bakarrik ibiltzeko gauza nintzen, uaaoh!

Eskola.

Eta eskolaren aurrean, hauxe:

1.-Apaiz bat. Sotatarik gabea baina apaiza, badakizue zein erraz igartzen zaien.

2.-Bilbotar bat. Ez zen "BILBOTARRA NAIZ" neonezko argitan inon azaltzen, baina badakizue zein erraz igartzen zaien.

3.-Donostiako neska tuntun-txolin bat. Zazpiehun eskumuturreko, lehoia pasatzeko mo-

duko aroak belarrietan, *kupeleko Marilyn* (rubia de botellazo), eta "i" ozen eta barre ttiki zoroz betetako hizkera ernegagarria (neska gajoari hitzik entzun gabea nintzen artean). Esan dezadan, bide batez, ogi tartean jateko modukoa zela.

4.-Gure irakaslea, *irakaslesa*, moztaka eta nor-nori itxurakoa.

Eta bi pertsona *normal*: biboteduna bata, eta ile beltz motzeko neska bestea.

Denak niri begira.

Donostiako tuntun-txolina hurbildu zitzaidan.

—Egunon, Juan Martin Errazu?

—Bai.

—Pozten naiz —eskua luzatu zidan— irakaslea naiz, Koro.

Koño, koño.

—Bueno koadrila, goazen barrura, barruan egingo ditugu egin beharreko aurkezpenak.

Herriko eskola, gure mahaiak borobilean, umeen pupitreak baztertuta.

—Ederki, lehenengo lana bakoitzak bere burua aurkeztea. Neu hasiko naiz, Koro Zaitegi naiz, tolosarra, hogeita hiru urte ditut, Majisteritza bukatu nuenetik euskara irakasten aritu naiz.

"Apaiza" irundarra zen, Joxe Mari, harakina.

"Mutil bibotedun normala" apaiza zen, Pablo.

"Bilbotarra" Durangokoa zen, medikua, Luis.

"Irakaslesa, nor-nori itxurakoa" hernaniarra, eta taberna bateko langilea, Izaskun.

"Ile beltz motzeko neska normala"-rekin asmatu nuen, Psikologia ikasten ari zen, donostiarra, Miren.

Neure burua ere aurkeztu behar.

—Juan Martin, hemeretzi urte, Ekonomia ikasten ari naiz.

Txalorik ez.

Taldeka jarri gintuen. Elkarri xehetasun gehiago esateko, gustuak, euskararekiko borrokak-eta kontatzeko, elkar hobeto ezagutzeko. Ni Izaskun eta Luisekin.

Ikasle-jendea sailkatzea komeniko litzateke, Izaskunen eta Luisen ezaugarriak ikaragarri ondo zegozkien-eta bi saili. Hona hemen euskaltegietan milaka urte pasa eta gero burutu-takoa:

1.-Euskara ikasi nahi dutenak (batzuk).

2.-Euskara ikasi behar dutenak (asko).

3.-Ba nire amak "eman nauzu gauza bat" esaten du, eta hori oso ondo dago! (dexente).

4.-Euskaltegira lagunak datozelako datozenak (asko).

5.-Kulebroiekin nazkatutakoak (asko).

6.-Euskaltegia ileapaindegia zelakoan sartutakoak (dexente).

7.-Izar batetik eroritakoak (dexente).

8.-Euskal literaturaren urrezko orriak irakurri ahal izateko datozenak (inor ez).

Izaskun 3 zen, eta Luis 7.

—Bai, nire izena Luis da edo duzue, eta nahi izanez gero, nahi baduzue, dei diezadakezue Koldo.

—Ba nik uste det ezagutzen dizutela, ez zera Hernanira joaten? Zergatik oso aurpegi ezaguna daukazu.

Horrela torturatu ninduten hogei minutuz, gero Korok ariketa bat banatu zigun, hutsuncak bete, "zintzaizkidaten"-eta (neu onena), eta gero tabernara hamaiketakoa egitera. Tabernan zera jakin nuen: bakarrik beste *baserritar* bat zegoe—la, Miren, Alkizako batean. Beste guztiak, apaiza izan ezik, pisu batean herrian bertan. Apaiza Alkizakoarenean, tentaziotik urruti.

Beraz, Joxe Mari harakina, Luis-Koldo medikua edo sendagilea, Izaskun eta Koro elkarrekin. Inbidia *kotxina* apurtxo bat sentitu nuen, akelarrereren bat edo beste imajinatuz, baina bista mendien gainetik Harrialde aldera zuzendu eta Ixabelen kantu-deia entzun nuen, itsaslamiak Ulisesi bezala ari (kuriosoa, ze, esan dudan bezala, hori bistarekin entzun nuen).

"Lasai, Penelope, —nire bihotza— itzuliko naiz zuregana, ozeanoak zeharkatuz, ziklopeak menderatuz, eta pretendiente likits horiek banan-bana estrangulatuko ditut" eta AI!, pretendiente hitzarekin batera Stephen Hawking-ek handik urte batzutara deskubritu zuen zulo beltzaren ikara infinitoa nire errai errukarrietan, seguru inguruko baserrietan, COU egin behar zuen Tolosako institutuan, nonnahi, dozenaka gizaseme onanismoakeriatan zebilela Ixabelengatik, eta ni han, urrutian, otsoak itxitura gainetik ari zirelarik!

-Juan Martin.

-Eh? Zer, Miren?

—Harrialdera joan behar duzu, nire baserri aurretik pasa behar duzu, joango gara elkarrekin?

Ordurako, nik pretendienteak estrangulatzen nituen bitartean, lehenengo goiza bukatuta.

-Bai, Miren, zein da zure baserria?

-Hango hura, Zelaitxo.

Abiatu ginen, ikaragarri gustatzen zitzaidan herriz-herriz ibiltze hori, neska eder bat nuela aldamenean.

Por zierto, lehen hasi naiz bada mitologiakeriatan, badago esan beharreko zerbait. Nire izena, jaun-andreok, Juan Martin Ulises da. Luze joko luke, baina bueno, nik banuen aitita bat, Salamancan grekera-katedraduna, egundoko lata eman zuena niri behar bezalako izen bat jar ziezadaten, eta bere lehenengo helburua lortu ez bazuen ere (Agamenon), iritsi zuen, ordea, Ulisesentzat brontzezko domina.

—Zer moduz baserrian, Juan Martin? Aldaketa handia? Familia jatorra?

-Jende ona da, bai, baina ni hiriko-lehengusu-tonto-señoritoa sentitzen naiz. Baserri giro hau *Heno de Pravzaren* anuntzioetan bakarrik ikusi dut. Zu zer moduz?

—Bueno, oso ondo, ni nagoen etxeko senar-emazteak bi alaba dituzte, nire adinekoak eta...

—Bikiak?

—Bai, bikiak dira, nola dakizu?

—Nik ere bikiak dauzkat baserrian, laster ezkonduko zaizkigu lauok.

—Bueno, ba *nire* bikiak Salamancan daude, eta etxeko alaba berria naiz, oso ondo tratatzen naute, oso kariñosoak dira.

Beraz biren gelan bakarra bazen, ohe bat libre, hipopotamo-zurrunkarik gabe, eta Miren eta biok euskaraz maitez elkar eta...

Baina Peneloperen deia entzun nuen; bista-
rekin, berriz ere.

Zelaitxoren atarian, ordu biak, gose ederra.

—Bueno, hala, baserrira lanera, bihar arte!

—Bihar arte, Miren.

Bueno, eta non zegoen Harrialde?

Alkiza hor, orduan hortik izango da, edo hortik?

Hemendik, gizona, hemendik.

Handik hogeita bost bat minutura konturatu nintzen ez zela *hemendik*.

Beroa, gosea, ezpatak odol berritara...

Hortik izango da.

Eta Jaungoikoari esker *hortik* zen.

Laurak hogeit gutxi, mundu guztia siestan; ez, Ixabel nire zain sukaldean.

—Azkenian! Ez zera be'la ailau!

—Galdu egin naiz, ikasle batekin bere baserrira joan eta despistatu, horixe gertatu da.

-Bueno, hemendik aurrera ez zera galduko, ezta?

Eseritzeko esan eta disfrutatzen hasi nintzen. Ixabelek kilometroak egiteari ekin zion, sukaldetik atera gabe. Babarrunak berotzen jarri, ura, platera, kubiertoak, ogia, eta bere usaina zetorkidan, *Nenuco* nire ustez, izerdiarekin nahasturik.

Ai, Penelope, izango al duzu pretendien—
terik?

Ezin nion hori galdetu, bigarren egunean
eta babarrunak sutan zituela.

Babarrunak eta maitasuna ez dira sekula
nahastu behar.



LAURAK ETA HAMAR. Euli pila sukaldean, baba-
rrunak plisti-plosti urdailean.

Ixabel niri begira.

—Siestatxoa egin behar det, Juan Martin.

—Ondo, nik ere bai...

Orduantxe sartu zen Morgan kuarteroaren
banda *Sa/oone&n*, ateari ostikoa emanda.

Egia esan, sartu zirenak aita eta bikiak izan
ziren, ostikorik ez.

—Bueno, belarretara, tira, goazen!

Konturatzerako traktorearen gurdi gainean
nengoen, biki artean, logurak, plisti-plosti.

Bikiak umore onean, siesta eginda, kabroi
haiek.

—Belarra eta artua bereizten ba al dakik? Belarra zea dek, behiek-eta jaten duen gauza berde hori, eta artuakin palomitak eiten dituk. —'A'-k

—Muskulatu beharrian hao, txikito, aber, badakik zer diren hauek?

Neptunoren *tridentea* erakusten zidan, eta *rastrillo* bat.

—Bueno, izenak ez dakizkit, baina zertarako diren baietz uste dut; belarra ekarri behar dugu, orduan...

—Hau eskuaria dek, eta hau sardia, beste hori sega, ezautuko dek.

—Bai, Heriok erabiltzen duena.

Uste dut nire esaldiaren sakontasunari ez ziotela igarri.

—Hori Donostian izango dek, hemen aitik ibiltzen dik jeneralian, herriko onena dek segan.

Uztaileko arratsalde sargoritsu hartan hartu behar nuen belarrezko bataioa.

Ailegatu ginen ekintza-lekura, Walt Whitmanek kantatutako belar-itsaso horietako bat.

Imajinatzen nituen, bai, sioux-en usainez betetako lautadak, eta Walt (ile eta bizar zuria, patriarkala) bertsoa kantatzekotan, edertasunak liluratuta, eta halako batean nirekin egundoko antza zuen arapahoe batek besotik heldu eta:

—Hi, Walt, poesia ondo zegok, baina gannaduak ez dik metaforarik jaten, sega zak!

Ze, klaro, paisaia ederra da etzateko, futbolerako edo paellarako, baina jaun-andreok, begira iezaiozue sega eskuan duzuela.

Morgan eta kuarteroak hizketan hasi ziren, swahiliz edo; lan-banaketaz, zirudienez.

Gauza bat ez ahaztu, irakurle maiteok, nik bikiak hizketan jartzen ditut, haiek zeozer esan eta nik erantzun, baina errealitatea oso bestelakoa zen, tartekatu beharko nituzke "zer?" eta "nola?" pilo bat, eta "hau eskuarearekin horrela eginez adierazi zidan" etabar; orduantxe azaldutako zimur ederrak dauzkat begi-ondoan eta kopetan, kontzentrazio-zimurrak, hain zuzen ere.

—Aita segan, ni eskuariakin, anaia belarra kargatzen gurdian eta hi sardiakin. Errezena dek, sartu bildurrik gabe belar-piloan, patata egosian bezela eta gurdi gainera, bale?

Zuek imajinatu... bada, Aita Santua San Pedroko basilikan meza ematen, mila artzapez-

piku mitradun eta alkatxofa-hostozko-kapeladunen aurrean, hostia altxatu beharrean aza erakutsiz, bai? Ba horren itxuroso nengoen ni tenedoreari helduta, gainera bakarren batek zera esango zukeen ni piura horretan ikusita, sardea bizi-bizirik zegoela, halakoxe tentsioa neukan besoetan, aldegingo ote zidan edo.

Hasi egin ginen.

Morgan segarekin; fenomeno, tipoa.

'A' eskuarearekin; fenomeno, tipoa.

Nire txanda.

Ez ba, ez nengoen barregarri gelditzeko prest, ez jauna.

Belar piloa nuen aurrean, desafioka. Goitik behera sartu nion sardea, ni San Migel eta hura Satan, alderik alde, errukirik gabe, hondoraino.

"Listo, pintxatu dut azeituna, orain trak—torera".

Baina azeituna iltzatuta zegoen lurrari, sardearen ziriak sator lurretan ondo sakon.

Eta ezin atera, tira eta tira eta tira.

Txindokitik entzuten ziren baserritarren algarak.

Nekizkien maldizio guztiak esanda, indarrak eskuratu nituen nondikbait, ez nengoen barregarri gelditzeko prest, ez jauna.

Atera egin nuen, Dios! bi metro nire buru gainetik altxatu nuen patata egosia, eta zero urdinetik behera milaka izpi berde, azeituna erabat desegin zen.

Bandakoak tripak bota beharrean.

Enfin.

'A'-k segituan bildu zidan belarra, txukun-
txukun, eta ez lehengo adorez, xuabeago, ezpa-
ta sartu eta lortu nuen puskatxo bat eramatea
traktorera. Colon ez zen gustorago gelditu,
Ameriketara ailegatzean.

Eta orduerdia pasa zen, eta ni baserritartua
zeharo, lanean zoriontsu eta kontentu.

Eta orduan doministikuka hasi nintzen.

Egundoko azkurea sudurrean eta eztarrian,
mukiak litroka, malkoak zerizkidan.

-Jesus, a ze alerjia, gutxitan halakoak.

Bego hizketan, nire koinata, Ixabelen ahizpa, medikua.

—Alerjia? Zeini? Zeri? Nori?

—Belarrari, moteil, jende askori gertatzen zaio.

Sukaldean, familia oso-osorik nire inguruan, eta Morganen kopetan, neonezko argitan, "gauza inutilagorik".

—Bihar pastila batzuk ekarriko dizkizut, egundoko aldea egingo dizute. Ez zaizu sekula gertatu?

—Ez, lehenengo aldia da.

—Bueno, gaur ez irten kanpora, etxe barruan hobeto zaude. Behin pastilak hartuz gero bizimodu normala eitia edukiko dezu.

Morgan eta kuarteroak joan egin ziren, lana, artean, bukatzeke, niri esker, eta medikua laguntzera.

Ni amona, ama eta Ixabelekin. Hiru belau-naldi eta jilipitxi bat.


Amak basokada esne beroa ekarri zidan; hartzeko, on egingo zidala. Seguru nago berdin egingo zuela hanka puskatu banu.

Baserria eta ni organikoki ezkontezinak,
mekauen la belarra, mekauden aaa...

—Atxu!

-Jesus! Lasai, Juan Martin, bihar hobeto
egongo zera!

Ai, Ixabel, Ixabel, Ixabel neria, ez al zene-
kien bada alerjiko nintzela?



GOGORATUKO DUZUE nire lehenengo gaua baserrian, zakilo-dantza, hipopotamoak etabar, ezta? Gau horrek, oraindik ere, sakonki grabaturik dirau nire bihotz hunkiberan.

Ahaztezina.

Bada, bigarrena, ahantziezina.

Doministikuka, azkureak, malkoak, eta hipopotamoak eta zakilo-dantza lehenengoan bezalaxe.

Baserria.

Enfin.

Noizpait lo hartu nuen, zazpiak laurden gutxitan edo. Zazpietan diana.

—Benga, Juanma, honezkero ohituta egon beharko huke! Baserrian goiz jeiki beharra zeok!

Eta bikiek, mustro horiek, garajera aldegin zuten.

Halako gandu antzeko zerbait begietan, non eta inguru basati hartan. Moldatu nintzen, halere, sukaldera iristeko, besoak sonanbuluen gisa luzaturik.

-Hemen alerjikoa! Zer moduz?

-Ez dut batere ondo ikusten, hainbeste malko, atxu!

—Bego lehentxo jetsi da pastilatara, laster izango da, halare gaurko goizagatik preso ego-tia komeni zaizula esan dit.

-Buf, klasea galduko dut.

—Egun batekua, mutiko. Ikastia daukazu, begiak argitzen zaizkizunian, baina orain gosal-du, eseri.

-Bai, eskerrik asko.

-Juan Martin, mutiko.

-Eeemm...

-Lo seko, hain nekatuta zaude?

-Buf, bai, oso lo gutxi egin dut, alerjia eta bikiak...

—Nola?

Jakina, ulertzekoa da jarri zidan aurpegia, bere anaiak "beste gaixotasun bat" bailiran aipatuta.

—Zurrunka egiten dute.

—Ah! Ez zabiltza suerteko, ala sakristaua!

—Ohera sartuko naiz berriz, Bego pastilekin datorrenean esnatuko nauzu, mesedez?

—Bai moteil, ondo lo egin.

Gelan ez bikirik ez armiarmarik, ze gutxi behar duen gizonak!

Lo egin nuen, lagun maiteok, ondo asko aprobe txatu nuen hipopotamoen oporraldia, eta halako batean esnatu, goxo-goxo gorputza eta... egundoko kanpin-dendarekin esnatu, *canadiense familiar* horietakoa bai, gutxienez. Baserriko giroak urbanikola gizondu.

Eta aldamenean, pastilak.

Egin dezagun atzera denboran X minutuz. Bego kaletik etorri da, pastilekin, Ixabelek har-

tu eta gelara igo da, ni esnatzera, esan bezala. Atean jo, eta nik lo seko entzun ez, sartu egin da, sehaskako umea bezalaxe nagoela ikusi eta esnatu nahi ez, pastilak aldamenean utzi ditu.

Eta canadiensea ikusiko zuen, bai gizona, ez da itsua eta!

Lotsatik... bai, bazuen zeozer sentitzen nuenak, eta beste sentimentu askotatik, morboa, plazerra, desioa...

Desioa.

Enfin.

Jaiki egin nintzen, oraindik ere malkotan begiak. Eguzki ederra leihoaz bestalde, etxe atzeko zelaitxoan. Kopeta kristalaren kontra jarri nuen, aho-zabalka eta neure *bikiak* azkuratzen.

Eta han zegoen, etxe-atzeko zelaitxoan.

Ikusi al duzue *Esplendor en la kierba*?

Ixabel belar gainean etzanda, BIKINIAN!

Ireki nuen leihoa, alerjiaren lausoa ote zen.

—Juan Martiin! Jeitsi zaitez, mutiko, ikaragarri gustora egoten da! Hartu dituzu pastilak? Jantzi bañadoria eta etorri!

Ai amatxo, atzera egin nuen tentazioaren aurreko izuak jotakoaren gisa, esku baldarrez maleta ireki, hau erantzi, hori erantzi, kantzon-tziloak erantzi...

Jesus.

Bainujantzia jantzi eta berdin: zulaczekotan. Toaja aurretik ipini eta bueno, zerbait disimulatzen zen, Fraga eta Arias Navarro pentsamenduan, bromuro eraginkorra.

Goazen ba.

Atzeko zelaitxora joateko ukuilutik pasa behar, toaja aurretik nuela, nabarmenkerien estalgarri, eta ahal nuen modu "naturalenean" heltzen niola.

Toaja gorri bizi-bizia.

Eta bi mila kiloko zezenaren aurretik pasa behar, moskeatuta nirekin, gainera, goiko zulo-tik behera txiza egin nionetik lehenengo gau gogoangarri hartan.

"Bueno, printzesa nire zain dago, izango ahal naiz herensugea menderatzeko gai".

Ukuiluan dagoeneko. Atea erdizka irekita, han zen bai, berdetan lore eder.

ezkerraldean begira-begira, korrika eraso nion aldameneka.

Ezetz asmatu zerekin jo nuen ate-kantoiari.

—Aaauuuh!

Ixabel korrika niregana, garrasiarekin bate-re harritu ez suhiltzaileak azaldu balira.

—Zer gertatu zaizu? Min hartu?

—Korrika nentorren eta atearekin jo naiz, jo dut.

—Korrika? Eta nun dezu mina? Egon, *Tantum* ekarriko det!

Bi segundu behar izan zituen, gutxiegi koartada osatzeko.

—Zergatik korrika-saioa?

—Zezenagatik, beldurra ematen dit.

—Zezena? Iskua da, moteil, on puska, eta lotuta dago!

—Baina toaja gorriarekin...

—Oooleee moteil, ooleee! Ja, ja! Toreroarenak eginez! Ja, ja, ja!

Ni toaja baino dexente gorriago. Esan dezadan kolpearekin bajatu zitzaidala *zera*, gaitzerdi.

—Ai, Juanma, ze salaua zeran, a ver, nun dezu kolpia?

—Eeeh... ba... hemen, belaunean.

—Honetan? Ez da ba ezer igartzen, *Tantum* nahi?

—Ez, ez *dapara tantum* izan.

—Nola? Ah, ja, ja! Jo mutil, hori umoria daukazuna! Bueno, goazen eguzkitara!

Ixabel izerbera zen, orduan ere ttantto distiratsuz betea zegoen. Usain gozo epela, atzetik ninduela, gizarajo tente-la.

Zabaldu nuen gorria berdearen gainean, eseri nintzen. Ixabel nire ondotxoan etzanda, ahozpez.

—Zer, torero, zer moduz alerjia? Pastilak hartu?

-Bai, hartu ditut, ondo nago, nola ez nauzu esnatu?

—Hain gustora ikusi zaitut. Behatza ahuan sartzia, hori bakarrik falta sihaskako umia izateko.

Begiak itxita Ixabel, goitik behera ari nintzaion begira denbora guztian, esplorazio urdu-

ria sentimentuz, baina geldi-geldia abiadaz. Haren bizkar pekotsutik urrezko tximak barreiatu, haragi eta hezur ezin politago haiek, aldakak eta bikini gorriaren barneko bekatu-eremua, muino apal sendoak. Ikusi egiten nuen neure burua bizkarra, ipurdia, izterrak musu—katuz...

Enfin.

-Juanma, ikusten *Nivea* hori? Emaidazu mesedez, erre egingo naiz bestela. Kontuz zu ere.

Kortozirkuito orokorra, ezin sinistu entzun nuena entzun nuenik.

Gereziondoaren ondoan geunden, ale gorriak dilindan, brisara apala.

-Ulertu al diazu?

-Bai, Ixabel, gereziei begira geratu naiz.

-Oraintxe jango ditugu batzuk, goxo askoak daude!

—El arbol del bien y del mal, la fruta prohibida, la tentacion, el petado, la expulsion del parafso...

—Nola?

-Filosofatzen ari naiz.

—Ge'ziei begira filosofatzen? Zer dezu buruan?

—Ezer ez barruan, hortik datoz arazoak.

—Bueno, emango al diazu orduan krema bizkarrian, mesedez?

—Bai, oraintxe.

Sartu nituen hatzak *Nzveata.n*, eskerrak artean *Azken Tangoa Parisen* ikusi gabea nintzen. Ezkerreko sorbalda... lepoa... eskuineko sorbalda... oso oso poliki, ez nuen segituan bukatu nahi. Ixabel begiak itxita, irribarrez.

Krema modu askotan eman daiteke, ez nuen nabarmen gelditu nahi, horregatik behar zen denbora baino hiru bat aldiz gehiago bakarrik pasatzen nuen igurtzi eta igurtzi. Egia esan, bera ere gustora zegoela pentsatu nuen, hala pentsatu nahi nuen, komeni zitzaidan hori pentsatzea.

Horrela ihardun nuen, piskanaka, poliki eta soseguz bezain nerbioso, urduri eta desasosegaturik.

Zer gertatuko litzateke azala bukatutakoan, aitzakiarik ezean?


Zer zen, erasoaren ordua ala zuhurtziarena?

Gerrialdean ari nintzen zegoeneko.

Iritsi nintzen bikiniak markatutako muga gaindiezinerara, eta aingeru guardakoaren esanetara, bukatutzat eman nuen lana.

Altxatu eta bi gerezi *biki* hartu nituen, putz eginez garbitu eta bat eskaini nion neskatxari, ahora eskaini. Irribarrez hartu zidan, ezpainak nire hatzetan segundu batez.

Alerjia, ale gorria, alegrantziazko arratsa, aleluia!



—BUENO, ORAIN NIK emango dizut, ezta? Zuri-zuri zaude.

Ahozpez etzan nintzen Santa Gertrudisi eskerrik asko-ka, gorputzean plazerrezko erleak burrundaka.

Eta hasi egin zen, bere esku beroa nire sorbaldetan, bizkarrean, gerrian, hanketan... eta ni, petrolio bila.

Bueno, ulertu ez duenak galde diezaiola ulertu duenari.

-Listo, aurretik zerorrek emango dezu, ezta?

—Eee... bai, gero, gora begira jartzerakoan.

Ahozpez ezin inkomodoago eta ezin bueltarik eman.

Enfin.

-Ixabel, orain oporretan zaude, nola pasatzen duzu uda?

—Bueno, eguzkitan, ahal izanez gero, asko gustatzen zait. Baserrian lan dexente izaten da, Tolosara enkargutara, inguruko festetara eta erreka eta batzutan plaira ere juten gera.

—Erreka? Eta ze plaira?

—Erreka polit askoa dago hemendik hogeia minutura, bainatzeko oso toki ederra. Koadri-lan edo Bego eta biok juten gera, eta plaira jeneralian Bidartera.

—Bidarte? Ez dut ezagutzen, non dago?

—Hendaiatik hamar minutura, oso plaira ederra da, nudista.

—Nudista?

—Bai, moteil, jendea larrugorritan.

—Eta zuek?

—Gu ere bai, klaro.

—Bego eta zu?

—Gehienetan bai, batzutan jende gehiago.

Beraz NIK EZ, beste gainerako guztiek ikusten zuten Ixabel LARRUGORRITAN.

Usteak erdia ustel eta beste erdia, kagii-
sos! Oker. Hiritik enbaxada kulturala etorri, ni,
alegia, baserritarrei mendetako ezjakintasun eta
ilunpetik irteten laguntzeko, modernitatearen
argiak ukuiluetan sartzeko eta Lady Godiva azal-
czen ez zait bada!

-Eta gurasoek badakite? Eta bikiek? Eta
amonak?

—Larrugorri ibiltzen gerala ez, ez litzaieke
gustatuko.

—Eta zergatik esan didazu niri?

—Jesus, hain normal atera zait. Zer ba, ez
zaizu ondo iruitzen?

—Ez naiz sekula joan halako toki batera, ez
dakit... ez dakit zer sentituko nukeen... ez al
da joaten inor begiratzera? Ez duzu inor ikusi
zure... zuri begira oso nabarmen? Modu txar-
rean?

—Modu txarrian ez. Beitu, denok beitzen
diogu elkarri, eta zer ustezu ba? neri ere gusta-
tzen zait mutilak ikustia eta biluzik pozik eta
gustora egoten naiz.

Ixabel argi-urte mordo batera zegoen nire
baserritarrekiko ideia tradizionaletik.

—Ixabel... nire ustez sufritu egingo nuke
halako plaia batean.

—Sufritu? Baina zergatik?

—Neskak larrugorritan... hainbeste edertasun... eta gero etxera, eta han ezer ez, ulertzen?

Tristura-zipristinak bere aurpegi maitagarrian, nire ahotsean nabaritu zituen horietxek.

—Ai, Juanma, bai, ulertzen dizut. Nik berriez... pentsatzen det... jo, ba egun batian mutil guapo bat nirekin gustatuko dela, eta ni harekin, eta oso ondo ibiliko gerala... behin baino gehiagotan amets egin det norbaitekin pasiatzen detala, musuka eta mimoka... hain gauza ederra izango da enamoratzia!

Elkarri begira geratu ginen, lotsaz, lotsa goxoaz. Eskua eskaini zidan, eskalearen jestuan.

Ahozpez etzanda nengoela, bere eskua nire aurpegiaren kontra jarri nuen, berak eserita segitzen zuen, eta beste eskuarekin ilea laztantzen zidan.


Maitasuna linboa da.

Bai, mundua desagertu egiten da, bihotzak bakarrik dirau bere horretan.

Linboa, argitsu eta epela, umez betea dago, erru eta herrarik gabeko arimak, "zu, hain handia, hemen, nola?" "enamoratuta nago" "ah, amodioa! "

Epeltasun horretan, halako batean, aingeru bat agertzen da, eta eskutik helduta paradisura eramaten zaitu.

Ixabelek zidan eskutik heldu.



LINBOTIK AMAK ATERARAZI GINTUENI "bazkaltzera!"; eta ni, lagun maiteok, ez naiz gogoratzen babarrunak, arabar ardoaz maneiaturako idi erre-gosia edo hostiak binagretan bazkaldu genituen, munduarekiko erdia itsu, herena gor eta laurdena mutu bainintzen. Bakarrik Ixabel ikusten nuen, Ama Birjina Fatiman bezalako aureolaz.

Bazkaria, zena zela, bukatu, eta Morganek zerbait esan zidan; Ixabelek segituan itzuli zidan euskarara.

—Hemendik ordu erdi batera edo, zure bila etorriko dela, belarretara joateko.

Eta bai, jaun-andreok, handik ordu erdi batera edo, nire bila azaldu zen, eta belarretara joan ginen.

Oinez, Morgan eta biok. Normalean swahiliz hitz egiten zidan eta batzutan —gutxitan—,

euskaraz. Hura segan eta ni eskuarearekin. Segaldi bakoitzean hondamendia hango bizidun ttikientzat. Inurritegiak dozenaka azaltzen ziren, zomorro errukarriak aztoraturik; larre-saguak korrika bizian nire ondotxotik, ziraunak, armiarma erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, erletzarrak, ezpatak, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerrak, txirritak; eta ibiliko ziren, ikusi ez banituen ere, ziklopeak, lamiak, basiliskoak, herensugeak, banpiroak, otso-gizonak, anakondak eta krokodiloak.

Izaki horietako bat agertu orduko trabatzen zitzaidan eskuarea, "ui!" "oi!" edo "bej!" esaten nuen, salto txiki edo handi bat, Morganek aurpegi asesinoaz begiratu eta segi aurrera.

Piskanaka, ohitu egin nintzen mustro-ugaritasun hartara eta naturalago ihardun nuen lanean. Halako batean, izerdi patsetan nengoela, Morganek "andawa, txita, andawa" esan eta deskantsatzera eseri ginen.

Zahatoa, ogia eta txorizoa. Lagun maiteok, nik ez nekien, eta ez dakit, zahatotik edaten. Gauza izan behar da irensteko likidoari sarrera galerazi gabe, ahoa ixteke, gauza izan behar, eta ez nintzen; orduan zera egiten nuen, ahoa betebetea nuela zahatoa jaitsi eta gloup! eta seigarren gloup-arekin ezin gustorago, aizue.

Morgan, pirata guztiak bezalaxe, gerra asko egina zen, eta publiko berria zuen batailatxoak kontatzeko. Ni, zelebrin-zelebrin, zuhaitz enborraren kontra, entzule interesatua.

Esan bezala ia beti swahiliz hitz egiten zidan, euskarazko hitzak eta batzutan (oso noizean behin) esaldiak ere sartuz. Gerrarekin hasi eta emozionatu egin zen segituan gizona, eta swahili itxi-itxi-itxi batean ekin zion, baina ni lasai, ezin gustorago nengoen-eta gloup-ei esker.

Zeukan adinarekin ez Kubakoan, ezta Anglo-boerrean ere ezin ibilia izan, 36-39-koa geratzen zen, eta egiten zituen imintzio eta keinazioekin alde batean bera bakarrik borrokatu zela pentsatu behar. Han ari zen gizona gorputz osoarekin lagunduz narrazioari, danba eta punba eta ta-ta-ta, hegazkin, tanke eta kanoi itxurak moldatuz, eta ni ezin gustorago, aizue; piperrik ez nion ulertzen, hori bai. Bueno, ez, ez da egia, hitz bat behin eta berriz errepikatzen zuen "kapitana", eta nik, gizarajo honek, jenero-markarik gabeko hizkuntza xeble horren kulpaz ez nekien Agustin Zubiondo Zumalakarregi edo Agustina Zubiondo Zumalakarregi buruz (Aragoiko Agustinarekin bir-bir-bir-biloba) ari zen. Jakina, hitzaldiaren gainontzekoak lagunduko zuen bereizketa horretan, baina swahilia zen.

Bitartean beste gloup batzuk jo nituen, eta sekula baino hobeto sentitzen nintzen, sasoi betebetea eta umore onean.

Ailegatu zen armistizioa. Belarra kargatu, prentsa-prentsa eginda, eta etxera. Bidean kantari ni, Morgan eskandalizatuta. "Lepoan hartuta segi aurrera", "Son tus perjumes, mujer", "Itziarren semea", " El turista 1. 999. 999", "Eusko gudariak", "Asturias, patria querida", "Zer eskatzen du herriak" eta "La, la, la", nire erreperteriorik onena.

Morgan, nik uste, ez zuen nire melokotoiak eskandalizatzen, borroka-kantak eta "fribolitateak" horrela nahasteak baizik. Apustu egingo nuke ez ninduela euskal iraultzarako guztiz ego-kitzat jotzen.

Enfin.

Iritsi ginen baserrira, "Gora Euskadi Askatuta"-ka ni.

Eta han Morganek egundoko tramankulu xelebrea jarri zidan eskura, *tridente* antzeko zerbait, baina ziriak barrukaldera guztiz makurtuta; izorratuta zegoela eta beste bat emateko esan behar nion, baina orduan kendu eta goitik-beheraka sartu zuen belarretan, tiratu eta belar mordo lurrera. Orduan konturatu nintzen, *be-*

lar-deskargagailu bat zen, behin zoruraz gero, sardearekin aldameneko biltegira. Hori dena nire gain utzi zuen Morgan jaunak, azalpen batzuk egin eta nire *no/aPrekin* batera bakar-bakarrik utzi ninduen. Belar-deskargagailuari *lauortzekoa* edo deitu zion.

Ikaragarri gustora segitzen nuen, gogotsu ekin nion lanari, deskargagailuari heldu eta aizkora enborrean bezalaxe sartu nuen belarretan, sakon-sakon, tiratu eta izpi bat ere ez zen mugitu, tiratu berriz eta batere ez, berriz, ezer ez, berriz bizepsak, trizepsak eta kuadrizepsak erabiliz; ia zintzilik batzutan, aurretik nuela, atzetik nuela, bertara igota, porlanezko belarra, jaun-andreok.

Halako batean aski zela erabaki nuen eta Sansonen filisteoen tenpluko ahaleginaren parekoa egin nuen, neure burua maldizioka animatuz, eta BAI! Han zeuden 18. 372. 528. 283445 belar-izpietatik gutxienez %0'0027-a erauzi nituen; kontrolatu ezinik atzera joan, biltegiko sarreratik barrena sartu, hango belar gainean erori (bi metroko saltoa) eta sehaskako umea bezalaxe geratu nintzen, amets goxotan.

Azkurez eta buruko minez egin zidan munduak ongi-etorria esnatzean. Burukoa badakizue zergatik, eta azkurea belarri, surtzulo, aho, begi eta abarretan ditxosozko belarra neukalako, eta segituan deskubritu nuenez, izu-ikaraz deskubritu ere, neu nintzen sandwicheko hanburgesa, bi metro letxu gaineratik eta beste horrenbeste azpitik.

Hostia.

Morgan eta biok ekarritako belarraren %99'9973-a nire gainean zegoen, bakarren batek ondotxo bete zidan sehaska!

Unibertso berdeagatik martziano horretan ezin ezertan apoiatu, belarrak amore ematen zien nire ahalegin guztiei eta bere baitan gordetzen ninduen, maitekiro eta "ez duk aldegingo"-ka.

Zerbait egin behar, eta zerbait egin nuen.

-Sokorro, sokorro, belar artean nago, sokorro!

"Sokorro" bakoitzean goilarakada belar barrura. Mugitu egin nintzen luzatuz pareta ukitu nahian, eta txaaaan! Eskua atera nuen!

Eszena imajina ezazue, "BASERRIKO ZONBIA" inguru ezin bukolikoago batean zon-

bi berde bat sortzen da belarretatik eta infernuko gaitz guztiak dakarzkio Euskal Aberriari.

Enfin.

Halako batean, egundoko garrasia, bakarren bat hurbilean.

—Eeeeh! Hemen nago, belar artean, barrura erori naiz, eeh!

Eskuarekin adioka.

—Juanma? Zu al zera?

—Ixabel! Ixabel! Ezin naiz atera!

-IXABEL!

Jende-hotsa, pausoak gero eta gertuago, eta, halako batean, atzapar batek heldu eta amuko legatza bezalaxe atera ninduen.

'A' zen, 'B' ondoan, jakina, eta Ixabel, eta Morgan, eta ama, eta Bego, eta amona.

Denak niri begira, eta ni, berde.

Denak batera hasi zitzaizkidan hizketan, ezin ezer ulertu, hitz-zaparrada hartan.

—Eceh... erori nintzen eta lo hartu eta ezin nintzen atera eta...

Ixabel bozeramale.

—Orain dela ordu pare bat aita zuregatik gaizki esaka etorri zitzaigun, bera komunera jun eta belarra deskargatzen hasteko esan zizula. Bueltan ez zinela inundik agertzen eta berak deskargatu zula dana, haserre. Gero denbora pasa eta nola esan zigun pipa-pipa eginda zeundela preokupatzen hasi ginen, zeozer gertatu ote zitzaizun eta bazterrak miatzen hasi gera, je, je! Eta begira nun zinen! je, je! A ze sustoa eskua ikusi detenian! ja, ja, ja!

Baserritar guztiak barrez, baita amona ere, eta sentsazioa eduki nuen zezena, behiak, oi-loak, konejuak eta aharia ere barrez ari zirela nire kontura.

Enfin.

Neu ere barrez, ze erremedio; 'A'-k bizkarrereko latza eman zidan, soinetik izpi mordoa astinduz; 'B'-k beste bat, gero aitak, irribarre—tsu, eta zerbait esan zidan swahiliz. Amak esandakotik "esnia" ulertu nuen, seguru asko basokada esne beroa hartzeko. Begok pastilekin ez ahazteko, bestela nire *belarritisa*. areagotu egingo zela, eta gero AMONAK! hitz egin zidan eta ULERTU! egin nion.

—Gazte, nere Tobias zanak ezkontzeko esan zianetik enun holako parre saiorik eiten.

AILEGATU ZEN, NOIZBAIT, hirugarren gaua. Gogora ditzagun eguneko gertaerak, siesta goizean (canadiensea e.a.) siesta arratsaldean (zontzia e.a.), beraz, batere logurerik ez. Hobe igoal, han ez zegoen-eta kristaurik lo egingo zuenik, hipopotamoak sasoi betean kantari.

Halere, gustora asko segitzen nuen, egunak emandakoak gogoan.

Ixabelekikoak, jakina.

Nire suspirioak bi aldetatik zetozen trumoi artean hain ttiki, hain umil, hain nimiño.

Sei t'erdiak aldera lo hartu, handik hamar minutura jaikiarazia, zeozer gosalduko nuen eta konturatzerako Alkizarako bidean nintzen.

Hirugarren klase-eguna, bigarreanean txikarra eginda.

—Egunon, Juan Martin, zer, atzo lan asko baserrian? —Koro irakaslea, irribarrez eta kaxondeo dexentez.

—Ez, belarrari alerjia diot eta etxean geratu behar nuen.

—Behar izan, behar izan.

—Ah, bai, geratu behar izan nuen.

-Belarrari alerjia! Ba toki ederrean zaude, mutiko!

—Lehenengo aldia da, pastilak hartu eta ondo nago.

—Bueno, barrura, koadrila!

Eta Joxe Mari harakina, Pablo apaiza, Luis-Koldo medikua, Izaskun tabernaria, Miren psikologoa eta seiok otzan-otzan sartu ginen Kororen atzetik.

Ahaleginak egin banituen ere Mirenen oncoan esertzeko, apaizarekin tokatu zitzaidan; binaka esertzen ginen, eskolumeak bezala.

Segituan jabetu nintzen egoeraz.

Joxe Mari harakinari Izaskun tabernaria gustatzen zitzaion, Izaskun tabernariari Luis-

Koldo medikua, Luis-Koldo medikuari Miren psikologoa, Miren psikologoari Pablo apaiza, Pablo apaizari Izaskun, Koro eta Miren gustatzen zitzaizkion. Niri batez ere Koro gustatzen zitzaidan, Miren ere bai, eta ez nintzen inoren gustoko.

Enfin.

"Mintza" egin behar eta jakina, hizketan ikusten zaizkio pertsonari hizkuntza eta bizitzarekikoak, alegia, nolakoa den eta nola bideratzen dituen iritziak kanpoaldera. Has gaitez Joxe Mari harakinarekin; lanbidea esan zuenetik nik belarri gainean matxetea ikusten nion, sagardotegirako txuletoiak mozteko erabiltzen diren ikaragarri horietako bat; mantala ere, txerri-oilo-txahal-arkume-odolaz blai, eta nolaz ez zuen klasean abererik zatikatzerik, deklinabidea eta aditzak txirtxiltzen zituen. Jakin bai, bazekien zer diren *zitzaizkidan*, *baletoz*, *ninduten*, *niezazkion* eta noiz -/ eta noiz -ari, baina aurrenekoan ez zuen sekula asmatzen. Autozuzenketa, poesiaz lagundurik.

—... lagunek ikusi zidaten eta... EZ! NINDUTEN! MEKAUEN LAS PUTAS DE JERICO! lagunek ikusi ninduten eta EZ, KOÑO! LAGUNAK IKUSI NINDUEN! MEKAUEN EL HUEVO DEL QUE SALIO EL ESPIRITU SANTO!

Majoa zen.

Luis-Koldo medikua errobota zen hizketan, alegia, hizkuntzaren erro jatorrak alde batera botatakoa. Gramatika akatsik sekula ez, baina ez zuen "euskaraz" hitz egiten. Luzea, repipia, pedantea, dotorea eta *tontolkuloz*. zen.

—Noski, noski, ezin genezake uka, Koro, dioskuzunak baduela arrazoirik...

Miren psikologoa, herabea eta euskaldunfededuna. Erraz lotsagorritzen zen, ez omen zegoen harentzat negar-malkorik gabeko elizkizunik, eta, jakina, Pablo apaiza gustatzen zitzaion.

—Aiii, igande goizetan, elizako kanpainhotsa entzuten dudanean, eskerrak ematen dizkiot Jaungoikoari hemen jaio nintzelako.

Hala eta guztiz ere, Miren oso majoa zen.

Pablo apaiza apaiza zen.

Koro irakasleak —salada, sinpatikoa, adarjotzailea eta parranda-zaleak—, mingain piperduna Pablo tentatzeko erabiltzen zuen, gehien bat, baina inor ez zegoen erabat salbu.

—Pablo! Laster Intxaurburuko festak, horko neskekin dantza egindako apaizek sotana harrika botatzen dute!

—Nireak soinean segituko du —Miren liluraturik begira zuela.

Mintzaren gaia: Ezkontaurreko sexu-harremanak.

Pablok sutsu ekin zion bere ikaskideak infernuko garretatik salbatzeko ahaleginari, bekatuaren nondik-norakoak adieraziz. Ulertu nuenarengatik, bekatua giza-irudimenaren abiapuntua baino askoz lehenagotik zetorren eta amaiera baino askooooz harantzago zuen muga, beraz, egin ditzakegunak, bekatuak, eta burutik, irudimen faltaz, pasa ere egiten ez zaizkigunak, bekatu lirateke.

Pulpitotiko erasoari Joxe Marik bakarrik egin zion aurre, gainerantzekoak bekatuzko ozeanoetan naufrago. Harakinaren estiloa apai-zarena bezain sutsua zen. Pablok gurutzea aurrez-aurre duen banpiroaren babes-ihes-keina-zioak egiten zituen, zartada latza hartu zuen "Mekauen las tetas de Santa Agueda"-rekin, zabuka "Mekauen los cuernos de San Jose"-rekin eta K. O. "Mekauen el tampax de Santa Clotilde"-rekin.

Eliza katakunbetan gorde zen.

Mirenek penaz begiratzen zion Pablori, santuaren martirioa ezin burutu, eta Joxe Mariri ere bai, bekatariaren esanak belarri minduetan.

Goizaren bigarren erdia *Itsasoak ez du esperantzartk* irakurtzen eman genuen. Giroa sosegatuago, itsasoa bezalaxe gu, zeruaz.

Eta etxera.

Triste gure Miren.

—Zer, Miren? Triste?

—Bai, Juan Martin, Joxe Marik esaten di-tuen hitz itsusi horiek... eta egia esan Pablo oso... oso... "estricto" iruditzen zait.

—Bai, ados nago.

Orduantxe eraso zigun Ziklopeak.

Mirenen baserritik lauhun metrora beste bat zegoen, zahar-zaharra, pitzaduraz josia, armiarma-sareen, huntzaren eta belar ziztrinen mende.

—Blpujhbrones! Xghknputas! Alde!

Izaki mustro bat harrika ari zitzaigun, eta "kakaka", maldizioka; gorotz pusketako batek bete-betean eman zidan aurpegian. Mirenek eta biok Speedy Gonzalezenak egin genituen, eta berrehun metro harantzago arnas-estuka gelditu.

—Hostia! Eeeh... barkatu, Miren, baina nor da anormal hori?

Oraindik ere jaurti eta jaurti ari zen. Aurregia garbitu nuen, nola-hala.

—Esan zidaten etxekoek, bai, mutil-zahar xelegre-xelegre bat bizi zela hor, bakar-bakarririk. Behin gure baserriko behi bat hil zuen eta askotan arazoak dituzte mugekin. Jendea ez zaio gustatzen, ez ezagunak, ez ezezagunak.

—Konturatu zara? Begi bakarra du.

—Bai, hori ere esan zidaten, bestea borroka batean galdu zuela.

—Eta zuk egunero bi aldiz pasatu behar duzu aurretik.

—Bai, gaur arte ez dut ikusi.

—Ze tipo itsusia! Partxe horrekin, etxe siniestro horretan!

—Inguruko herrietan denek ezagutzen omen dute, festetan azaltzen da, beti borroka bila.

—Ba datorren astebukaeran Intxaurburuko festak, gogoratzen zara? Korok esan du.

—Bai, eta apaizek sotana harrika botatzen dutela.

—Pablo ez da joango, edo bai?

-Klasekoak joango gara?

-Aaah... ba ez dakit, ni gustora joango nintzateke.

—Dantzara?

—Bai, eta euskaldun berriak, bueno, euskaldunzahar berriak ezagutzera.

—Zuk oso ondo hitz egiten duzu, Juan Martin.

—Zuk ere bai, Miren; batuan bai, baina baserritarrekin ezer ez dakidala iruditzen zait.

—Ya, eta niri, zaila da, baina gaur hirugarren eguna da. Bueno, bazkaldu beharko dugu! Bihar arte!

—Bihar arte, kontuz ziklopearekin.

—Eh?

—Begi bakar hori.

—Ah! Kontuz-kontuz pasako naiz.

Eta etxera, goseak nengoen.

Patatak txorizoarekin, mundialak, egundoko platerkada ederra zerbitu zidan Ixabelek.

—Familia?


—Baserrian ordubatian bazkaltzen da, mutiko, eta zu ordubi t'erdietan azaltzen zera. Zer moduz klasian?

Hau eta hura kontatu nion, eta "Mekauen el tampax de Santa Clotilde"-rekin batera amona sartu zen.

-Txa-ñi-go go-ñi-txa txa-pu-tin.

-Zer esan du?

-Hemen kaka-usaia daola, eta eztala etxe-ko behiena.



Ez ZEKIEN ONDO Ziklopeak zer egin zuen kakaztu ninduenean, neuk ere ezin jakin aurreneko euri-tanta zela, KAKA-EGUNA-ren etxafleroa.

Mendizaleak zortzimiletara igotzen dira eta jendeak txalotu egiten ditu, eta txaloak areagotzen dira "oxigenorik gabe" baldin bada, bai? Ba ni batere oxigenorik gabe aritu nintzen *mendikakate* batean, eta ez da inprenta hutsa, ez.

Anastasio Erkiagak, aitita Greziazaleak kontatuta, banuen Herkules heroiak egin behar izan zituen hamabi lanen berri, eta ondo asko nekien bat Aujias erregearen ukuiluak garbitzea izan zela.

Ukuilu horietan zikinkeriak, urte mordoan bazter guztien jaun eta jabe, heroi baten iharduna aldarrikatzen zuen, eta Herkules iritsi eta mendikakateak zituen ikusi.

Patatak eta txorizoak emandako epeltasun loarazleaz ttontto-ttontto begiratzen nion Ixa-

beli, mahaia tartean eserita biok, elkarri irribarez.

Eta Morgan errukaitza ekarri zuen iparraldeko haizeak. Patatak, txorizoa eta hirurok atzetik ginduzkala, "garri" eta "urra" ulertzen nizkion bere swahilian.

Beharbada *Garri* Cooper-en filme batez ari zen.

Beharbada urrak biltzera gindoazen.

Gero frogatu ahal izan nuenez, hitzak "ongarri" eta "simaorra" ziren. Morganek ukuiluko labirintoetan barrena gidatu ninduen, eta, halako batean, mendikakateak nituen ikusi.

Amatxo maitea.

Munduan izan diren behi guztiek egindako kaka guztiak hantxe; mustro marroi geldia, so-roak haren irrikaz omen.

Gurdia kargatu behar; pala pasa zidan Morganek.

Enfin.

Ekin nion, sartu nion pala saihetsetik mustroari. Ordurarte ohizko usaina, etxeko zoko guztietara ailegatzen zena, zertxobait fuertea-go, baina pala sartutakoan... lurrinak, mus-

troaren hats kirastuna, hedatu ziren airera, eta egundoko goragalea heroiak.

On Garri Cooper-en Oesteko pelikulak gogoratuz zapiaz estali nituen aho-sudurrak. Morganen algarak Txindoki-puntako artzainak entzuten zituen.

Palakadaz-palakada, mustroak itxura berriak hartzen, konturatzerako belaunetaraino sartuta. Lurrunetan espektro letagindunak, deabru sega-azkazaldunak, arima erratiak paradisu bila, eta Herkules lanean gogor, baina gurdikoa txepetx—kaka zen eta bestearen gainetik Dumbo toneladako plastekin bonbardatuz. Mustroak gerri—raino irensten ninduen, eta halako batean Morganek "bale" esan eta irristatu egin nintzen pozaren pozaz.

Baserriko zonbia berdetasuna galdurik.

Morgan gauza izan zenean (dexente kostatu zitzaion barre zoroa menderatzea), mangera niregana zuzentzeko esan nion, aurre-garbiketa egingo genuela ("prelavado" etxeko "Zanussi"-an bezala), eta han ihardun zuen margarita erre-gaitzen. Gero korrika bizian eraso nion eskailetan gora, erantzi eta dutxatzeko irrikaz, baina ai! amonarekin gurutzatu nintzen; uste dut azkenean deskubritu zuela norena zen etxeko behiena ez zen kaka-usaina.

Jertsea erantzi... beug, aagg...

Kamiseta, prakak, kantzontziloak...
boaaj...

Dutxara. Kostatu zitzaion apar zuriari ore marroiaren kontrako guduan nagusi irtetea. Hiru aldiz xaboitu, sekatu eta *Body cream*, *Eau de Cologne*, *After Shave*, desodorantea eta hidrantea eman eta gero, sukaldera. Sukaldean barrez ari ziren. Garboso asko sartu nintzen arropa zikina nekarrela, kakaztutako kantzontziloak aintzindari.

Ixabel eta Morgan, gorri-gorri eginda deskojonoaren deskojonoaz.

-Ai, gixajoa, kakatara erori ez zera ba!
-Ixabel.

—Flamunstxip txinplusflan! —Morgan-eta, seeegi biak barrez.

Enfin.

Morganek luze xamar ihardun eta itzultzailak zera adierazi zidan, simaurra botatzeko zegoela.

—Kaka artera atzera, mutiko; animo!

Herkules fitxatzera berriz.

TRAKTOREA KAKAZ GAINEZKA, Morgan eta biok soroetarantza, a ze gauza poetikoa.

Iritsi eta Morganek ia *konduzitzen* ba al nekien. Ezetz. ez zen harritu batere, erabat inutilizat ninduen eta. Igarri nionez traktorea neuk gidatzea nahi zuen, eta berak gurdi gainerik kaka-banaketa egingo zuela. Azaldu egin zidan, pedal hau, beste hori, palanka hau... auto-txoketan bezala, erraza ematen zuen.

Prozesua hauxe zen: Leku batean gelditu (*punto muerto* sartu behar nuen), Morganek kaka bota, hamar metro egin (*primera*), gelditu (*punto muerto*), kaka bota... gero eta zirkulu txikiagoetan.

Dena fenomeno, aizue, ez alerjiarik, ez barrerarik utziko ninduen gauzarik; baserri aldeko bizimodu basatia hiritarraren jakinduri zabalagoaren mende. Kaka botatzeko balio nuela erakutsi nion munduari.

Bi mokordotxo besterik ez gurdian eta Morgan zeharo aztoratu zen, erlojuari begiratuta. Bota zidan hitzaldian "tutian" eta "seietan" ulertu nituen, seiak eta hogezi ziren eta seietan tute-partida zeukan. Saltatu eta korrika bizian ekin zion, berrogei metro esprinean, nirekin gogoratu, "traktoria bertan utzi" esan eta adio.

Enfin.

Han geratu ginen kaka eta biok bueltaka.

Plana: Azken bi mokordotxoak bota eta etxera, nire maitearekin meriendatzera.

Suspirioak irten zidan bihotz barren-barre-netik.

Bueno, *punto muerto* jarri eta...

Koño, horrenbeste aldiz hain ederki sartu eta...

Jesus! Lehen ez zegoen bada horren gogorra!

Iiiiiuuuuñññgggiiii... Mierda!

Esandako maldizioak, egindako ahaleginak, dena alferrik; kaka-palanka hura ez zen mugitzen eta kaka artean segitzen nuen.

Zer egin?

Ia bada, ezin dut gelditu, orduan... hemen bueltaka utzi eta korrika baserrira... eta bitartean malkarretik behera erortzen bada? Morga- nek moztu egingo lizkidake.

Baserria hirurehun metrora zegoen, ikuste- rik ez, handik nire garrasi desesperatuak entzu- terik ere ez.

Koño! Baserrira traktorea eta guzti, eta han Ixabelek geldituko du!

Baina indar-kontua baldin bada, Ixabel ere ez da gauza izango.

Bueno, egia esan, Ixabel ni baino indar— tsuagoa da.

Amona ere egongo da, eta amona ere ni baino indartsuagoa da.

Eta haiek ere ez badira gauza?

Ixabel, amona eta hirurok baserriaren ingu- ruan bueltaka.

Txu-txu traktorea.

Bueno, zerbait egin behar dut.

Baserri aldera bideratzekotan nengoela zera begietaratu zidan nire kultura zinematogra-

fikoak: nola jotzen zuen zubiko zutabe nagusiaren kontra traktore koskor batek, nola erortzen zen ibaira pasatzen ari zen ehundaka lagunez betetako Donostia-Altsasu tranbia. Airean arropak, pertsonak, oihuak eta metal txirtxilduaren hotsak, sua eta anbulantziak.

Traktorea baserri aldera ez bideratzea erabaki nuen.

Esperantza gasoila bukatzea zen.

Zazpiak hogeit gutxi.

Zazpi t'erdiak.

Zuek badakizue zer den traktore batean mila buelta ematea? Tar-tar-tar tor-tor-tor eta inguruan munduko behi guztiek obratutakoa?

Zortziak eta hamar.

Gurpil azpira saltatzea zebilkidan, buka zedin sufrimendua, baina gurpil azpira saltatzeko kaka gainera saltatu behar nuen, eta ez nuen kakazturik hil nahi, ez jauna.

Zortziak eta hogeita bost, Ixabel bidean.

Hurbildu bitartean jakinaren gainean jarri nuen. Irribarretsu, kontaktora eraman eskua eta KLIK! Salto txiki bat eta traktorea gelditu cgin zen.

Ixabel malkoak zerizkiola.

—Ia bi ordu! ia bi ordu pasa dituzu bueltak kontaktoa kentzia ez zaizulako okurritu! —eta seeegi barrez.

Enfin.

Uztaileko iluntze epela, kilkerrak lanean. Uzta oparoa, dudarik gabe, munduko behi guztiek obratutakoa eta nire izerdia nahastuz. Ixabelen barre-malkoek ere lagunduko zuten.

Neskatxak eskua hartu zidan; nire barruan bihotza beste errairik ez.

-Mutiko... gustatu egiten zait zu hemen egotia.

Ezpainak haren matrailera, ez nintzen hitz egiteko gauza; hark beste bat bueltan, eta alxatzen ari zela:

—Goazen afaltzera, mokordito.

Afaldutakoan Ixabel eta biok atera egin ginen, lagun maiteok, eta ilargiaren argitan pasean ibili.

Eta izan zen musurik.

INTXAURBURUKO FESTAK. Korok famatutako neskak (apaizei sotana harrika botatzea eragiten zietenak) ezagutzeko irrikaz klaseko arrok.

Bertsolariak, herri-afaria eta berbena. Denok abiatu ginen, Pablo ere bai, bere bokazioaren sendotasuna froga horretan egiaztatzen.

Eta horrela, Koro, Luis-Koldo, Joxe Mari, Izaskun, Pablo, Miren eta zazpiok Intxaurburura iritsi ginen egun batez.

Trikitixa ari zen, animazio handia bertan eta aldameneko txoznan. Seguru asko sen atabikoei jarraituz gizonok taberna aldera jo genuen eta neskek dantzara, baina Pablo, nire ustez oraindik sen atabikoago bati jarraituz dantzara joan zen, neska artera.

Por zierto, dantzari fina, gure apaiza, eta neskak ez ziren batere txarrak.

—Nola gustatzen dizkion neskak apaizari!
Kauen el Concilio Vaticano Segundo! HOS-
TIA! ZAIZKION, JODER! ZAIZKION!

-Guztiz laket zait herriko jende xehearen
pozaldi jolastiarra.

Enfin, konpainia ederra nik, Don Kauen
eta Don Euskaltzaindiarekin, Coca-Colan kon-
tzentratu nintzen.

Plazaren bestaldean mutil-koadrila batek
gu gintuen hizpide; begibistakoa zen, guri be-
gira elkarri kontu ttikiak esaka, eta begiratzen
ziguten Ku-kux-klanekoek beltzei bezalaxe.

Seguru asko Luis-Koldok zituen kulpak,
Giorgio Armani ez da dotoreago ibiliko; Joxe
Mari eta ni normal asko jantzita, baina jakina,
jilipitxiaren lagun jilipitxiak ginen.

Halako batean apaizei sotana harrika bota—
tzea eragiten dietenetako hiru azaldu ziren.

A ze hiru neska!

Claudia, Naomi eta Cindy.

Altuak, aurpegi polit-politak, udako soine-
ko loredunak, titiz eta ipurdiz buenooo...

Eztizko neskatilak.

Luis-Koldo eta Joxe Mari erletzen hasiak.

Niri berriz, sen atabikoa abisuka ari zitzaidan. Itsas-lamiak, edo lehorrekoak, galbidea dira gizasemearentzat, sirena-kantaren lilurak hondamendira darama marinela.

Sen atabikoari entzungor eginez, eta nesketako bat eskuarekin haiengana joateko ari zenez, bakar-bakarrik utzi ninduten Don Euskaltzaindiak eta Don Kauenek.

Malizia plazakoen aurpegietan, baita Kororenean ere... ezkutatu ziren Don eta Don Cindy eta konpainiaren atzetik...

Plassssh!

Bi baldekada behi-txiza, jaun-andreok.

Eskatologia -nagusi. Eskerrak libratu nintzen, gehiegitxo izango zen kaka-egunaren ondoren. Senak salbatu.

Joxe Mari mekauendioska azaldu zen, baina bueno, ohitua gizona, lanbidez, errai, tripa, odol, gorputz-isurietara, edo ohituago, behintzat, atzetik zuen Euskaltzaindia baino. Euskaltzaindia ez zegoen "EKIN ETA JARRAI"-tzekeko moduan, gizarajoa ez zen ezta "zakizkigun" esateko gauza ere.

Bilera orokorra, plazan jende asko barrez, beste batzuk errukituta.

—Sentitzen dut, aurten zuei tokatu zaizue, baina ez haserretu, laster azalduko dira adiskidetzera eta dutxa eta arropak eskaintzera. —Korok.

—Aurten guri tokatu zaigula? Urtero egi-ten dute hau?—Joxe Marik.

—Urtero bromaren bat kanpotarrei, bai.

—Nolakoa izan zen joan den urtekoa? —Nik.

-Joan den urtean... ah, bai, ezer ez, ibaira bota zituzten batzuk.

Don eta Don besteok egindako zirkuluaren erdian, tanta jario. Izaskun penatuena, Luis-Koldo gustatzen-eta.

Korok esan bezala, laster hurbildu zitzai-
gun Ku-kux-klana.

—Atsaldeon! Aizue, ni baserri hontantxe bizi naiz, zatozte nerekin, txukuntzeko behar ederra daukazue eta!

Nire ustez Joxe Marik harategiko matxete-
tzarrak zeuzkan gogoan. Luis-Koldok ez zuen

erreakzionatzen, otzan-otzan joan zen baserritarren atzetik.

Korok segitu zuen hizketan. Imajina ezazue Tanzaniako oihanean galdu zaretela eta kanibalek espedizioko bi afaldu dituztela; esploratzaileak lasai egoteko, denok onik irtengo duzuela dio.

Korrarako moduko musika hasi zen, eta segituan hasi zen plazan zirkulu bueltakaria. Ku-kux-klanaren eraso txiza-jaurtitzailak sortutako egonezina uxatzeko aproposa zelakoan denok sarrarazi gintuen gure irakasle maiteak. Katean tartekatu behar eta halako batean elkarturiko eskuak pasatu zitzaizkidan aurretik, sartu eta lehenengo lana aurre-atzeko kate-mailei begiratzea. Atzetik hasi nintzen: neska bat, politt-politta, aizue. Aurretik segitu nuen: atzeko neska politt-polittaren senargaia, Siziliako *Cosa Nostrako* hezur-puskatzailea eszedentzian, eta ikaragarri gustora kuttunarekiko lotura eten nuelako.

Enfin.

Laster ekin zion *vendettañ*, besoa erauzi nahi zidan, bide batez eskua txirtxildu eta bizkarrezurra desegin, hori dena irribarretsu.

Plazako izkina-aldera iristean abiada azkartu zeharo eta tira eginez zirkulutik Finlandia-

rako bidean jarri ninduen. John Waynek nola botatzen zituen gaiztoak *Salooneko* ate zabukarietatik? Ba holaxe joan nintzen hankaz gora, eta adokin-zola zen.

Intxaurburuko festak.

Zutitzeko gauza izan nintzen, halere, eta sen atabikoak tabernara gidatu ninduen, penak Coca-Colatan ito nitzan.

Hombre, txizatan bainatutakoak badatoz.

Joxe Mari normal xamar. Luis-Koldo mahonezko prakak, Kanadako-egurgile estiloko alkondara eta... abarkak. Mutilak oin handiak izan eta zapata normaletan ere nahiko lanak kabitzen.

Hasieran bezala ginen, gizonok edanean, neskak dantzan, Pablo neskatan.

Bertso-saioaren ordua.

Bertsolariek ikasketen ahozko azterketak gogorarazten zizkidaten; gizon batzuk niri begira, swahiliz hizketan; beti mundu arrotzetan, ni.

Lazkano eta Agirre. Gai-jartzaileari ondo ulertu nion, ezkongaiak ziren eta Lazkanok dudak zeuzkan, bestea ez ote zitzaion aitaren dirutzagatik arrimatuko.

DOINUA: MARITXU NORA ZOAZ

LAZKANO

Pitxuflini txaputin
 zuretzat eginik
 tralari txurrobeitia
 barruko indarrrik.
 Txarrapikotutiflin
 aitaren dirurik
 katxazunbopitzotzi
 maitea zaitut nik.

AGIRRE

Trasfumandis pitxirri
 zu bezain alperra
 kotatobiespageti
 ein deten okerra.
 Kindergarten patxuli
 neskatxa ederra
 murgoflanen txeroki
 izango akerra.

Klasekideak inguruan, tentsioa aurpegie-
 tan, ulertzeko ahaleginak, kontzentrazio-zimu-
 rrak. Konturatuko zinetenez, nik puntuari erre-
 paratzen banion beste guztia galtzen nuen. Koro
 belarriz-belarri zebilen, jendeari laguntzen.

Gero musika gehiago, eta lagun maiteok,
 deabrua ezagutu nuen.

Bai, deabruak Koro Zaitegi du izena, tolosarra, irakaslea, eta arima ustez garbi bat infernuruatu nahian ari zen.

Luzifer bere lugartenienteekin ari zen hizketan, Naomi, Claudia eta Cindyrekin.

Pablok Miren-Izaskun-Koro zirkuitoa egiten zuen, "agarraua" ari zenez, neskak Joxe Mari eta Luis-Koldorekin banatuz. Neuk dantzarako gogorik ez, aratz eta birjin Ixabelentzat. Pieza bukatu eta Pablo bakarrik zegoen momentu batean segituan joan zitzaion Claudia, jakin nahi nuke deabruaren konplize horrek zer kontuak esan zizkion. Gero Naomiren txanda, gero Cindy, denek apaizarekin egin nahi. Jesukristok ez zituen gorriagoak pasa basamortuan.

Ailegatu zen, noizbait, afaltzeko ordua; bannuen gogoa lasai-lasai eseri eta zeozer jateko, soseguz.

Enfin.

Hiru mahai handitan dozenaka lagun.

Hango ondokoei heldu eta kantu-zaparradak, beste mahaietakoei apurrez eraso beharra, hango builak, barre zoroak, juramentuak, txanpaina-erasoak!

Menua zera zen: arrain-zopa ardo beltzarekin (aldamenekoek botata), haragi egosia patata

eta txanpainarekin (fдем) eta flan ogi-apurrekin (ldem).

Enfin.

Gero krisia pasa nuen, hizkuntzarekikoa. Aitortu beharrean nago —egiari hainbeste zor zaiolakoan—, jaun-andreok, JESUKRISTOREN GOGOIA nuen erderaz hitz egiteko.

Hasta los mismisimos del vascuence, oiga.

Sichicoesqueestoyhastaaquideparecer tontodelculodetenerquepensartodoloque digodequemehablenenswahilidenopoder explayarmeagustoqueacabotodoslos diasconlacabezacargadisimayunasganasdelcophonbenditodeirmeaalgunstitiosin lenguasprerromanicasnilamadrequelaspario esateko gogoia nuen.

Enfin.

Berriz hasi zen baltseoa eta Pablok urratutako bideari ekitea erabaki nuen. Claudiarengana joan nintzen, dantza nola eskatu pedante-tontolkulo-euskaraz-putaidearik-ez-daukana agertu gabe hausnartzen.

Claudia ederra baino ederragoa zen.

—Dantza... egingo zenuke nirekin?

Begi handi ilunak niregana.

—Bai.

Gerrian nik, sorbaldetan hark.

—Ze mouz? Zu Koron ikasletakua zera, gustora klasian-eta?

—Eh... bai, oso ondo, Koro oso irakasle ona da, gaizto xamarra.

—Koro, gaiztua? Ze in du oraingo hontan?

—Baaa... zu eta beste bi walkiria bidali apaiza tentatzera.

—Je, je! Horrela izan da, bai, gaizki iruitzen?

—Ez, oso ondo, zertaz hitz egin duzue? konturatu naiz asko hitz egin diozula.

—A ze kontrola! Eztiot sagarrik eskeini, eh?

-Nik gustora hartuko nizuke ba.

Isilunea.

—Zein da hemen gaiztua, mutiko? —Sinpatiaz.

-Gaiztoak zuek, nire klasekoak bainatu dituzue, Claudia.

-Claudia? Roxa det izena.

-Zure lagunekin azaldu zarenean izenak jarri dizkizuet, Claudia, Naomi eta Cindy.

—Ba Roxa, Ana Mari eta Juani gera, eta bueno, lehengo dutxa hori... festetako gauzak, zu salbatu ein zera, halare, neska gaiztok ezteu zu tentatzen asmatu.

—Es ke ni masta nagusian lotua nintzen.

—Masta nagusian lotua? Ah! Kirk Douglas bezala!

Aitita greziazalearen marmarrak aidean.

Hiru pieza Claudiarekin.

—Gero arte, zuk ze izen daukazu?

—Juan Martin.

—Gero arte, Juan Martin.

—Gero arte, Claudia. Roxa!

Eta joan egin zitzaidan Claudia marineltentatzailea.

Dantzan jo ta ke segitu nuen, Izaskun, Koro eta Mirenekin.

Eta Izaskunek zera esan zidan:

—Nola egin leike hori! Txiza bota! Koldori traumatuta ikusi diot!

Eta Mirenek zera esan zidan:

—Uste dut Pablok sotana harrika botako duela.

Eta Korok zera esan zidan:

—Ni, deabruaren laguntzaile? Je, je! Bali-teke, baliteke!

Eta goizeko laurak, kontsentsuz, erretira—tzea erabaki genuen. Alkizara denok, Joxe Mari, Luis-Koldo, Izaskun eta Kororen pisura.

Bi gela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxekoak kafeak-eta zerbitzen hasi ziren.

Gogoratu: Joxe Mariri Izaskun gustatzen, Izaskuni Luis-Koldo, Luis-Koldori Miren, Mireni Pablo, Pablori hiru neskak, Korori (?), niri bueeeno.

Metro gutxitara bi ohe, eta behar izanez gero kalean bi kotxe eta Euskal Herriko ferde-tasuna.

Korroan lurrean. Kafea, patxaran, Cola-Caoren bat.

—Soldaduak kuartelean berriz! Zer moduz pasa duzue? Zaurituak hobeto? —Korok.

—Joder! esan zintezkeen... ZENE-ZAKEEN! urtero turistei zerbait egiten... die-te! DIETELA!

—Urtero egiten da zerbait, bai, baina Jesus! nik ezin nuen jakin aurten guri tokatuko zitzai-gula, bueno... zuei, eta zer egin behar genuen? Badaezpada ez joan?

—Nik behin telebistan erreportaia bat ikusi nuen, Keniako massai... tarrei buruz, eta ikusten zen ume txikiak nola bainatzen zituzten txizan... txizean... txizatan, oso desin—fektante ona omen da. —Mirenek.

Hizkuntza bera-swahilia-eta jendea txizaz desinfektatzeko mania berbera. Antropologo edo antropofagoren batek ikertu beharko lituzke massaitarren eta euskaldunen arteko lotura begibistakoak.

Tertulian, bata komunera, bestea sukaldera eta halako batean aipatutako loturak bezain begibistakoa zen zerbait, Izaskun eta Luis-Koldo *missing*.

Uiuiuiui...

"Ai, Koldo, maite dizut gehiago..."

"Atsegin dut zutaz... zureganako... zurekiko... Izaskun".

Errieta egin nion neure buruari haien intimitatea urratzeagatik, irudimenaz izan bazen ere.

Handik gutxira Miren eta Pablo desagertu ziren. Koro, Joxe Mari eta hirurok gelditu ginen. Barre ederrak egin genituen Don Kauen-en harategian gertatutakoekin, eta halako batean non azaltzen zaigun Miren, Maria Magdalena bihurturik.

-Juan... snif, ih, ih, Martin... ai ama! Lagunduko di-da-zu etxera?

Gajoa negar eta negar ari zen, besotik hartuta bere baserrirantz abiatu ginen.

-Lasai, Miren. Lasaitu, bonita.

-Es ke... ih, ih... ez dakizu...

—Ez, eta ez jakitea hobe. Apaizekin kontuz ibili behar da, Miren, gogoratu esaera hura.

—Ze esaera?

—"Los cojones del cura de San Fernando los cargan cuatro mulas, y van sudando".

—Oh! ji, ji! ji, ji, ji! Eta bada kantu bat ere: "Nire herriko apaizak semetxo bat badu, osaba esaten dio, berak hala nahi du"

Eta horrela, Maria Magdalena irribarretsu utzirik, atzera herrira egin nuen. Jakina, gau hura Alkizan bukatu beharko, ia nor sartzen zen oihanean gauez!

Mirenen baseritik urrunduz, egun argiz bitan zeharkatzen nuen basoari erreparatu nion. Beztasunean mozoloak tertulian, eta bihotza goxotasunez hasi zitzaidan betetzen herrira hurbildu ahala. Gaua gauezkoentzat.

Ate-danbatekoa, bakarren baten hankahotsa eta nire bihotzeko goxotasuna Siberian ikusten nuena ikusita.

Ziklopeak ixten zidan pasoa.

Lastargia eskuan, bide-erdian tente-tente, ilunak aurpegiaren alde bat jaten ziolarik (begiko partxeagatik), Karonte txalupariari arima galduak eramaten dizkion espektrua.

Eta biok.

Sikiera Olentzerok linterna bat ekarri batio. Lasaitu egin behar, halere, igoal ordua galdetu nahi zidan.

-Eh... gabon, zer moduz?

Harri-botaka eraso zidan, mekauden Satan! Atzera egin nuen korrika, irri-karkara

makurra belarrian. Mozoloak tertuliari utzita begira somatu nituen.

Mirenen baserri alderago, jaurtiketa-eremutik kanpQ, gudulekuko egoera aztertu nuen, Napoleonek Austerlitz-en bezala.

Errefortzurik ezin eskatu, ez nuen apaiz-hostia-horrek mindutako Miren beste saltsa batean sartu nahi.

Baserri inguruan ziklope-uxagailu bila, balde zahar mailatu bat hartu, putzuetan bete, eta ur uher haietan lurra eta harri-tintxarrak bota nituen.

"Orain ikusiko duzu, Vistalegre!

Han segitzen zuen espektro erronkariak, aurrera ezinik nahi adina denboran edukiko ninduelakoan. Hamabost bat metrora nengoela, harriak. Baldea ezkutu-gisa behin, bi aldiz, hiru...

—Aaaaii! CABRON!

Arma biologikoa aurpegira hustu nion, eta hustutakoan kristoren kaskarrekoa eman baldearekin. Swahilizko maldizio latzenak orru batean esanez, lastargia bota eta eskuak begira eraman zituen, eta nik Speedy Gonzalezenak egin nituen.

Etxeko epelera.

Eta... boao! *Perros de pajan* Dustin Hoffman, bospasei akabatu eta, nola azaltzen den irribarretsu-irribarretsu?

Ba hark sentitu zuena, ziklopea menderatutakoan konprenitu nuen.

Etxean Koro bakarrik egongelan.

—Joxe Mari lehentxeago oheratu da, bada-kizu gelan beste ohe bat dagoela. Zer moduz Miren?

-Hobeto, barrez utzi dut.

—Pozten naiz. Pablo serio-serio joan da, ez digu ezertxo ere esan. Lagundu idazu ohea ateratzen —eta ari ginela— ezin kejatuko zara, nire ohea uzten dizut lotarako.

—Zure ohea?

—Bai, Izaskun eta Koldo mutilen gelan daude, Joxe Mari Izaskunen ohean sartu da, zu nirean eta ni sofan.

-Mila esker, irakasle.

-Ez horregatik, ikasle. Ondo lo egin.

-Berdin, eta gabon-musua?


-Je! Gabon-musua Gabonetakoa da, bai-
na bueno...

Mua mua.

Majoa zen Koro, oso. Leher eginda, erantzi
eta ohera, izara artean nire irakaslearen usain
leuna.

Deskantsua azkenean.

Deskantsu handirik ez, lagun maiteok. Du-
darik gabe, Joxe Mari Hipopotamoen Abes—
batzakoa zen.



ASTELEHENA, JAI-ONDOKO ALPERRA. Jaiki orduko erabaki zuen gure irakasle maiteak ez zegoela klaserik, ikaslegoa gustora asko.

Mirentxu panpoxa-panpoxa azaldu zen, kroasan egin berriekin. Izaskun eta Luis-Koldo Kupidok geziz josirik mahairatu zitzaizkigun, maitasunak jotakoei jartzen zaien aurpegi zenbat-maite-zaitudan-cariño-mfo horrekin.

Gosaria, mundiala.

Eta beti bezala, gosaldutakoan abiatu, baina orduko horretan hemisferioz, meridianoz edo galaxiaz aldatuta nengoenez, etxerantz, etxetik beharrean.

Goiz-giro ederra eta bidean zikloperik ez.

Baserrian kristaurik ez. Dutxa ederra hartu eta atarian eseri nintzen, zeru berde eta zelai urdinei begira, edo aldrebes igoal.

Aurreko gauean Siberiara joandako goxotasuna bueltan nire bihotzean.

Ixabel eta ama, aitzurrekin; amak "egunon" eta barrura, Ixabelek "egunon" eta aldamenera.

-Zer, parrandero? Gaupasa eginda, eh?

Deena kontatu nion, txiza-auria, korroan hasi eta nola joan ziren nire hezurak adokinetara, bertso-saioa, deabruak nola tentatu zuen hiru aldiz Pablo, afaria, nire erderaz egiteko irrika, Claudiarekikoa, itsas-lamiak eta masta, Alkizako etxeak, ziklopea nola menderatu nuen, non eta nola egin nuen lo, alegia non eta nola ez nuen batere lorik egin. Ixabelek zirkoan baino hobeto pasa zuen.

-A ze epopeia, mutiko!


—Ixa... epopeia esan duzu eta... badakizu nire izena Juan Martin Ulises dela?

—Hara! Ba...

—Ulises etxera bueltatu zenean Penelope-ren pretendienteak hil zituen, baina nik ez dut hori egin beharko, ezta?

Ixabelek ez zidan berehalakoan erantzun, baina bere irribarreak konexio zuzena zuen nire bihotzeko goxotasunarekin.

—Ez, Juan Martin Ulises maitia, eztezu inor hil beharrik, eta por zierto, ni Ixabel Penelope bataiatu ninduten.



UDAK AURRERA SEGITU ZUEN, lagun maiteok, eta izan zuen heroiak patxada hartzeko denborarik, hasiera bateko milaka arriskuak etxekotut a.

Eskuak zaildu, hankak Harrialde-Alkiza zirkuitoan sendotu, batua eskolan aberastu eta Morgani azken egunerarte hostiarik ulertu ez.

Eskolan bakoitza bere zoroak bizi, jakina. Izaskun eta Luis-Koldok, kupido ipurmasailgorriz inguraturik gau eta egun, euskalki berria asmatu ziguten, nor maitearen akatsak bereganatuta, eta horrela, bietako edozein zen "ezin leikezut adieraz dakusadana" esateko gai.

Koro, Joxe Mari, Pablo eta Miren d'Artagnan eta hiru euliteroak bihurtu ziren; bai, apaizak harrika bota zuen sotana, Mireni eskua eskatu, eta Mirenek eskua eta beste gutia eman zion; Don Kauen eta gure irakasle maitearekin a ze parrandak egin zituzten, uda epel hartan.

Eta ni zoriontsu, feliz, heureux eta happy nintzen nire Ixabel Peneloperekin.

"San Simon eta San Juda, joan zen uda, eta zibilizaziora bueltatu beharra heldu da"

Alkizan ezin esan ezer bukatzen zenik, izan ere zin egin genion elkarri hilean behin afaritan bilduko ginela, txuletoiak Joxe Mariren kontu, eta zin horrek ederki gozotu zituen despedidaren mikatzak. Izan zen, halere, malkorik, musurik eta "ondo ibili" sentikorrik.

Eta Ulises, emozionaturik, baserrira abiatu zen.

Baserriko sukaldean adiorik ez; ordurako, baita "iskuak" ere bazekien Ixabel eta biona, baina gauzak behar bezala egin behar direla-eta, Morganek egundoko hitzaldia bota zidan, swahili dotorean.

Auskalo zer esan zidan, gizonak.

Musuak amak, bizkarrekoa 'A'-k; musuak Begok, bizkarrekoa 'B'-k; musuak Ixak, bizkarrekoa Morganek, eta Jaungoikoari esker, bizkarrekoa amonak.

Baserritarrak atarian, taxi zibilizatu-zibilizatu batek hartu ninduen, eta lehenengo eguneko indijena potolo-txapeldun-purodunarekin

ez bezala, ikasitakoaren erakusgarri, txoferrarekin ez nuen inongo komunikazio-arazorik eduki.

Erdaldun peto-petoa zen.

